



Aitor Azkarate
Lezamara batu da,
Athleticen kadete
taldeko bigarren
entrenatzaile
izateko / 20



1986ko kintoek egun
osoko ospakizuna
egingo dute zapatuan
Durango / 2

Otxandiarrek
Legution orain arte
egon den pediateraren
lanpostua betetzea
eskatu dute / 5



24. Korrikak
Atharratze eta Bilbo
lotuko ditu, 11
egunez Euskal Herria
zeharkatu eta gero / 5



EMAKUMEEN LASTERKETA, AHALDUNTZEA HELBURU DUEN PROBA

Azaroaren 23an Emakumeen Lasterketa egingo dute.
11:00etan hasiko da, atletismo pistan.
Diruaren zati bat Izan Inurri elkarteari emango diote / 12-13

BARRA BASKULAGARRIA
259 €-RA ARTEKO **OPARIA***

- Sortu espazio bat apalak gehitzeko
- Optimizatu biltegitratze-espazioa

* Guztira 1.500 euroko balioa duen proiektu baterako balio du, zergak barne, eta barra bat erostegatik

EDO KENDU EGIN DAITEKEEN ISPILUA
148 €-RA ARTEKO **OPARIA***

- Armairuan sartua
- Diskretua eta eskuragarria behar duzunean

* Guztira 1.500 euroko balioa duen proiektu baterako balio du, zergak barne, eta ispilu bat erostegatik (MIESCANO)

SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

AZAROAREN 4tik 30era
GOZATU GURE
UDAZKENEKO ESKAINTZEZ



Xabi Bisquert, Alazne Lejarazu, Jon Irasuegi, Vanessa Beraza eta Mikel Aranguren, Gran Hotelaren aurrean.

"Edozein aitzakia da ona lagun zaharrekin batzeko"

Zapatua laguntasuna eta nostalgia ospatzeko eguna izango da Durangoko hainbat herritarrentzat. 1986an jaio ziren askorentzat, behintzat, bai, kintoen eguna ospatuko dute eta. ANBOTO jaira batuko diren kide batzuekin elkartu da Gran Hotelean

Ekaitz Herrera DURANGO

Txernobylgo zentral nuklearrak eztanda egin zuen urtea izan zen, Xebastian Lizaso bertsolariak Euskal Herriko txapela jantzi zueneko eta Eusko Alkartasuna EAJtik banandu zeneko. ETBk euskaraz bakarrik berba egiteari utzi zion urtea izan zen. Zalan-tzarik barik, 1986 emankorra bezain korapilatsua izan zen eta zurrumbilo haren erdian jaio ziren asteburu honetan kintoak ospatuko dituzten bost lagun hauek: Xabi Bisquert, Alazne Lejarazu, Jon Irasuegi, Vanessa Beraza eta Mikel Aranguren. Eurak eta beste 70 lagun Durangoko kaleetan batuko dira 1986an jaio zirela ospatzeko. "Momentu polita izan-

go da, denok batzeko balioko duena", esan du Berazak, eta Irasuegik berretsi egin du: "Gutariko batzuok elkar ikusten dugun arren, beste askoren berririk ez dugu. Beraz, polita izango da aspaldiko lagun berri izatea". Ikastetxe desberdinetan ibilitakoak dira bostak, baina bat datoz zapatukoa oroitzapen onak gogoratzeko eguna izango dela esatean. "Nik eskolako oso oroitzapen onak ditut, eta gaur egun, nire seme-alaba biei eskerrak, gauza mordoa dator kit akordura", esan du Lejarazuk. "Izan ere, Euskaraokearen, *tactel* txandalen, Art oinetakoen, Dragoi Bolaren, eta *Messenger* erabiltzen genuenen belaunaldikoak gara", gaineratu du

Arangurenek. "E! Eta zelan ahaztu *Txori*, gure lehenengo dantzalekua!", gaineratu du Berazak.

Eta garai zaharrak gogoratzeko eguna behar den moduan irten dadin, bazkalarrean egin dute hitzordua, 13:00etan, Durangoko Zero tabernan. Zapiak banatuko dituzte han; gero, poteoa. Bazkaria Gran Hotelean izango dute, eta baita geroko dantzaldia ere, Sergio Torrado musika jartzaile durangarra lagun. Txorisorik barik, baina Txorisoron legez, "nekatu arte". Izan ere, Berazaren berbetan "edozein aitzakia da ona aspaldiko lagunekin batzeko". Eta zergaitik ez, baita kinto egunetan ere.

Indarkeriaren biktimak gogoan Durangon, Memoriaren Egunean



Ezkurdiko monolitoan biktimen senideak eta ordezkari politikoak batu ziren.

Joseba Derteano DURANGO

Astelehenean, lore eskaintza egin zuten Ezkurdiko monolitoan. Udalbatzako talde guztiek parte hartu zuten, eta bertan izan ziren ere biktimen senideak, politikari ohiak eta norbanakoak. Mireia Elkororibe alkateak azaldu zuenez, "dolari, aitortzari eta bakearen aldeko konpromisoari" egin zioten lekua. "Terrorismoak eta beste indarkeria batzuek hildako pertsona guztiak errespetuz eta duintasunez oroitzeko da gure betebeharra", esan zuen.



Indarkeria matxistaren kontrako kartela, Durangoko sarreran.

Indarkeria matxistagaitiko 24 kasu artatu dituzte Durangon

Uztailetik irailera bitarteko datuak dira, Indarkeria Matxistaren Unitatean erregistraturikoak

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak herrian erregistratutako indarkeria matxista kasuen berri eman du. Uztailetik irailera bitarteko datuak dira, Andraguneko Indarkeria Matxistaren Unitatean jakinarazitakoak. Horien arabera, 24 kasu erregistratu dira herrian 2025eko hirugarren hiruhilekoan. "Horietatik 18 genero-indarkeriakoak izan ziren, eta hainbat indarkeria mota sartu zen, hala nola sexuala, fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa. Gainera, familia barruko 4 indarkeria kasu eta sexu-indarkeriako 2

kasu artatu zituzten", jakinarazi du udalak.

Arreta bideratzeei dagokienez, 14 pertsona bideratu dituzte Oinarritzko Gizarte Zerbitzueta- ra, 4 Esnatu arreta psikologikoko zerbitzura, eta bat Krisi zentrorra, sexu-indarkeriazko arreta zerbitzura. "Ezinbestekoa da antzemate, arreta eta bideratze bideak sendotzea, eta sentibilizazio kolektiboa lantzen jarraitzea", azaldu du Jessica Ruiz Berdinatsun zinegotziak. Indarkeria Matxistaren Unitateak Andragunean ematen du arreta, Lariz dorrean.

LABUR-LABUR

Bost edukiontzi betetzeko adina zabor errekan

Durangoko jai batzordeko kideek eta herriko hainbat eragilek Mañaria erreka garbitzeko jardunaldia egin zuten domekan. Bost edukiontzi betetzeko adina hondakin atera zuten ibilgutik; "Plastikoak, obrako oholak, umetxoentzako aulki bat, plantxa bat, oheburu bat, aulkiak, tiraderak eta arropa", besteak beste. Antolatzaileek ingurumena zaintzera deitu zuten.

Urki bi ebaki dituzte baimenik barik

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, herriar batek San Faustoko urki bi ebaki ditu baimenik barik, "zuhaitzak altuera handiegia" hartzen ari zirela iritzita. Bestalde, Ibaizabal parkeko haritz bi "borondatez egindako mozketen ondorioz" hil dira. Udalak erantzukizunez jokatzera deitu du.

Gizon bat ikerketapean droga salmentagaitik

Ertzaintzak eginbideak zabaldu dizkio 68 urteko gizon bati osasun publikoaren aurkako delitua egotzita. Agenteek Durangoko lokal batean egin zuten esku hartzea, bertan substantzia sorgogorriak saltzen zirelakoan. Lokalean haxixa, marihuana, balantza bat eta 2.500 eurotik gora topatu zituzten. Ertzaintzak jakinarazi du ikertuak polizia aurrekariak dituela.



Jolastokiak irabaziko duen eremu berdearen infografia. ZALDIBARKO UDALA

Eskolako jolastokia handitzeko lanak hastear Zaldibarren

Jolastokiak 1.500 metro karratuko azalera gehigarria irabaziko du, berdegune bat eta hainbat elementu barne

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko eskolako jolastokia handitzeko lanak hastear dira. Udalak 307.489,52 euroko diru atala erabiliko du lanok egiteko, eta, horri eskerrak, eskolako patioak 1.500 metro karratuko azalera gehigarria irabaziko du, berdegune bat barne. Eremu berri horrek "eszenatoki bat, ortua, baso txiki bat, begiralekua, mahaia eta lauki itxurako egitura bat izango ditu, aterpe lanetarako", udal iturriek azaldu dutenez. Eskola komunitateko kideek askotan adierazi dute jolastokia txiki geratu dela eta

ez dituela hezkidetzak eskatzen dituen ezaugarri guztiak betetzen.

"Pazientzia"

Horrenbestez, udalaren berbetan, jolastokia handitzeak "hainbat onura" ekarriko dio hezkuntza komunitateari. Eneritz Azpitarte alkateak aurreratu du lanek "hainbat hilabete" iraungo dutela, eta "pazientzia" beharko dela azken emaitzaz gozatzeko. Edozelan ere, "umeentzat eta gazteentzat eremu atsegina" izango dela aurreratu dezakegu, azaldu du Azpitartek.

Gaitasun Handiko Osasun Zentroaren proiektua, idaztear

E.H. DURANGO

Durangoko EAJk jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak 500.000 euroko diru partida prestatu du 2026ko aurrekontuetan, Gaitasun Handiko Osasun Zentroaren proiektua idazteko. Jeltzaleen esanetan, inbertsio hori "lehen urrats erabakigarria da herrian osasun-zentro eraginkorra erakitzeke eta arreta espezializatua Durangaldeko herritarrengana hurbiltzeko". Datozen asteetan aurkeztuko dute Plan Funtzionala, eta aurkezpen horretan zehaztuko dituzte zentroak hartuko lituzkeen zerbitzuak, eremuak eta espezialitateak. Mireia Elkoiroribe alkateak esan du proiektua "errealitate bihurtzen" hasi dela.

EH Bilduk "aliantzak berrikustera" deitu du Durangoko EAJ

J.D. DURANGO

Durangoko EH Bilduk "aliantzak berrikusteko" deia egin dio EAJri, Carlos Garcia zinegotzi popularrak Arnaldo Otegi "terrorista" eta "hiltzaile" izendatu eta gero. Garciak joan zen barikuan egin zituen adierazpenok, X sare sozialean, eta EH Bilduk "erakundeetatik kanpora" egon beharko lukeela gaineratu zuen, "Alemanian alderdi nazia legez". Hori horrela, subiranistek aliantzak berrikustea eskatu diete jeltzaleei, "Espainiako ultrasokuenak gure herria garai ilunetara" darimalakoan. Koalizioak gogoratu du PPK EAJren alkatetza babestu zuela.

Korrikak Atharratze eta Bilbo lotuko ditu martxoan

Euskararen aldeko lasterketa erraldoia martxoaren 19an irtengo da Zuberoako udalerritik, eta hilaren 29an helduko da Bizkaiko hiriburura, 11 egunez Euskal Herria zeharkatu eta gero. 'Euskara gara' izango da leloa; Errigora omenduko dute

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

AEKk prest dauka Korrikaren edizio berria eta aste honetan eman ditu manifestazio erraldoiaren lehenengo xehetasunak. 24. edizioak Zuberoako Atharratze txikia eta Bilbo, Euskal Herriko hiririk handiena, lotuko ditu martxoaren 19tik 29ra, bidean Euskal Herri osoko bazterrak egunez eta gauez zeharkatu eta gero. *Euskara gara* izango da edizio honetako goiburua: "Denok gara ezinbesteko. Pertsona bakoitzak du balioa; hitzun bakoitzak garrantzia. Euskaltegieta izena eman dugunok, euskara lehen hizkuntza dugunok, kanpotik etorri garenok, euskaraz Euskal Herrian ikasi eta bizi nahi dugunok... denok herri bat gara. Euskara gara", esan dute Korrikako arduradunek. Era berean, manifestazio erraldoira batzera deitu dituzte herritarrek: "Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra. Piztu da Korrikaren garra!". Gainera, edizio ho-



Korrika Zornotzako herrigunetik igarotzen, aurreko edizioan.

netako eragile omendua Errigora izango dela iragarri dute.

Indarraldirako deia

Ohikoa duen moduan, AEKk euskararen normalizazioan aurrera egiteko eta euskaltegiak finantzat-

zeko baliatuko du 2026ko Korrika. Alabaina, bere helburuetatik harago, koordinakundeak pizkunde berri bat abiatzeko baliatu gura du egitasmoa, euskararen komunitatea "larrialditik indarraldirako" bidean ipintzeko.

Gaztainak batuta, Trumoitte prest dago Gaztainerre egunerako

Elkarteak Gaztainerre eguna antolatu du azaroaren 22rako. Xehetasunak aurrerago iragarriko dituzte



Hainbat garaitar irten zen basora gaztaina bila. TRUMOITTE

Ekaitz Herrera GARAI

Urriaren azkenean, gaztaina etxean dio euskal atsoitiz batek. Eta urria pasatu den arren, esaera zahar hori azarorako ere egokia dela erakutsi du Trumoitte. Joan zen domekan, kultur elkarteko kideak gaztainak batzera irten ziren basora, udazken giro argitsua lagun. 10:30ean irten ziren plazatik, eta mendi ibilbidea egin bitartean, gaztaina mordoxka batu zuten. 20 bat lagun batu ziren txangora.

Orain, baturiko gaztainak erretzea eta jatea baino ez zaie falta. Horretarako, Gaztainerre eguna prestatzen dabilta. Iragarri dutenez, azaroaren 22an egingo dute jardunaldia, baina xehetasun guztiak aurrerago jakinaraziko dituztela azaldu dute.

Zornotzako udal eraikinetako eguzki energia sarea, hazten

Zornotzako Udalak eguzki energia lortzeko instalazio berriak martxan ipini ditu Larrea eta Luis Urrengoetxea kaleetako eskoletan; lehendik martxan zebiltzanei gehituta, udalak esan du aurrera doala energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzeko konpromisoan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak herriko eguzki energia sarea indartu du beste gune bi ipinita. Hain zuzen ere, Luis Urrengoetxeako haurreskolan eta Larreako eskola publikoan ipinitako eguzki plakak martxan dira jada. Beste hiru gune daude aurretik. Lehenengoa Zelaieta Zentroan, 2011tik; San Juan-Urritxe, San Juan Ergoien eta Epalzako ur deposituetan ere badaude. Horrez gainera, Larrea kiroldegiak 100 kWko eguzki instalazio fotoboltaikoa du. "Instalazio hauek estrategia orokor baten parte dira, eta eraikin publikoen energia faktura jaistea, karbono aztarna murriztea eta hurbileko energia berriztagarrien erabilera bultzatzea da helburua", azaldu du udal iturriek.

Horrez gainera, Zornotzako Udalak Ugarte Bideako eta Andaparako argiteria berriztu duela azaldu du. Bertan, LED teknologiaren aldeko apustua egin du, energia kontsumoa



Eguzki energia plakak.

gutxitu eta argiztapena hobetzeko asmoagaz. Urri amaieran amaitu zituzten lanak. Udalak ia 47.000 euroko inbertsioa egin du argiteria zaharra LED teknologiagaz aldatzeko. "LED teknologia erabilita, argiek

iraunkortasun handiagoa izango dute, energia gutxiago kontsumituko da, argiztapena eraginkorragoa izango da, eta horrek ingurune irisgarriago eta atseginago bat sortzen lagunduko du", azaldu du udalak.

Asteburuan Jan Alai pintxo lehiaketa egingo dute

Zornotzako 23 establezimenduk parte hartuko dute Jan Alai pintxo lehiaketan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako tabernetako barrak pintxo irudimentsuz beteko dira asteburu honetan. Hain zuzen ere, Jan Alai pintxo lehiaketaren edizio berri bati ekingo diote gaur iluntzean. Guztira, 23 establezimendu lehiatuko dira banatuko dituzten sari nagusi biak lortzeko. Epaimahaiak aukeratzeko duen pintxo irabazlearen egileak 1.000 euroko saria jasoko du, eta herritarrek gustukoaren pintxoaren egileak 500 eurokoa. Sari banaketa domekan izango da, 18:00etan, Zelaieta zentroan. Bertan borobilduko dute pintxo zaporeko asteburua.



Amaia Aurrekoetxea eta Ainhoa Salterain.

Xuxurlariak abesbatzaren 20. urteurrena, zapatuan

Zornotzako Xuxurlariak-ek ekitaldia egingo du zapatuan, 20 urteko jarduna bete duela ospatzeko

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Xuxurlariak abesbatzak ekitaldi berezia antolatu du zapatuak, hilak 15, hamarkada biko jarduna bete duela ospatzeko. Abesbatzak 2005eko urrian eman zituen lehenengo urratsak, Karmelo ikastetxeiko ikasleen gurasoen eskutik. Etxe izan dute urte hauetan guztietan, eta, normala den moduan, emanaldi berezia bertan egitea erabaki dute; han entseatzen dute eta han une gogoangarri asko bizi izan dute urte hauetan. "Ekitaldi aparta eta hunkigarria izango dugu", azaldu dute. Ez dira bakarrik igoko oholtzara; kolaborazio bereziak izango dituzte. Jaurne Gaminde sopranoak eta Beñat Egiarte tenoreak abestuko dute, eta Josep Bufornek pianoa joko du. Zornotzako Andra Mari Ikastolako Gurasoen Abesbatza ere batu zaie ekitaldirako. Kontzertua 19:30ean hasiko da.

Sahararen aldeko Gaztañerre egingo dute Berrizen, gaur

Gaur, azaroak 14, 19:00etan hasita, Olakueta plazan ohiko Gaztañerre egingo dute; oraingoan, Sahararen alde



Gaztainak. BERRIZKO UDALA

A. M. BERRIZ

Urtero data hauetan egiten duten legez, berriztarrek elkartzunezko Gaztañerre jaia ospatuko dute gaur, 19:00etan. Gaztaina erreak jateaz gainera, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararren kanpaleketarako elikagai ez galkorak batzeko kanpaina ere egingo dute. Bertaratzen direnek gaztaina sorta bat jasoko dute elikagai pakete baten truke. "Baldintza eskasetan bizi diren milaka sahararren aldeko keinua" izango da. Partaidetzarako Udal Kontseiluak antolatu du ekimena. "Nahiz eta dohaintza derri gorrezkoa izan ez Gaztañerren parte hartzeko, berriztarrek parte hartzea animatzen ditugu, edozein ekarpen erabakigarria delako Saharako kanpaleketan laguntza honen zain dauden milaka lagunentzat", esan dute.

'Argazkizaleak' ekimena martxan ipini dute Elorrion

Argazkilaritzagazko zaletasuna eta euskararen erabilera uztartzeko helburuagaz sortu dute 'Argazkizaleak'

A. M. ELORRIO

Elorrion proposamen berri bat gehitu diote Berbalagun egitasmoari, Argazkizaleak deituriko egitasmoa, hain zuzen ere. Martitzenero 18:00etan batzen dira Iturri kultur etxean, argazkilaritzagazko zaletasuna eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Parte hartzaileek elkarregaz esperientziak, iritziak eta ezagutza teknikoak euskaraz partekatzeko aukera bikaina izango dute bertan. Antolatzaileek nabarmendu gura izan dute ez dela beha-

rrezkoa gaian ezagutza izatea. "Argazkilaritzaren bitartez hartu-emanak euskaraz sendotu eta elkarrengandik ikasteko espazio bat sortu gura dugu", adierazi dute. Horrez gainera, parte hartzaileen gustu eta interesen arabera ibilaldiak, argazki saioak, erakusketak eta beste ekimen batzuk antolatzea ere kontuan hartuko dutela azpimarratu dute.

Informazio gehiagorako, herritarrek Iturri kultur etxean bertan galdetu dezakete, edo 639 400 786 telefonora deitu.

"Onartezina da hiru herri pediatarrik barik egotea"

EIDER AJURIA JAUSORO ETA ANE ABASOLO CALLEJA GURASOAK

Otxandioko herritarrek Legution dute pediatria zerbitzua, baina irailaren hirugarren astetik pediatarren lanpostua hutsik dago; "ardura handiz" bizi dute egoera

Aitziber Basauri OTXANDIO

Eider Ajuriak (Otxandio, 1986) lau urteko ume bat eta bederatzi hilabeteko beste bat ditu. Ane Abasolok (Gasteiz, 1986) bederatzi eta sei urteko haur bi. Legution orain arte egon den pediatarren lanpostua hutsik dagoela azaldu dute. Oinarrizko zerbitzua izanik, postua betetzea eskatzen dute. Otxandioko, Legutioko eta Ubideko umei ematen diete arreta bertan.

Zelan bizi duzue egoera?

Eider Ajuria: Umea gaixotuz gero, Legution eskatu behar dugu hitzordua, erizainagaz, eta umeak medikuarengana joan behar badu erizainak berak kudeatzen du



Eider Ajuria eta Ane Abasolo, Otxandioko plazan.

hitzordua. Urte bi baino gutxiagoko umeak pediatararengana bideratzen ditu beti, Gasteizera, eta urte bitik gorako umeak Otxandio familiako medikuarengana. Ez ditu pediatria batek artatzen, aldizkako azterketa egokitzen ez bada behintzat. Egun berean hitzordu bi ditugu, leku desberdinetan.

Ane Abasolo: Gainera, baliteke hitzordu bien artean hiru orduko tartea egotea. Beti izan dugu pediatria Legution. Larria bada, Txagorritxura (Gasteiz) joaten gara zuzenean.

Jaioberrien kasua da zaurgarriena.

E.A.: Bai, azterketak oso maiz izaten dira, hori dena ondo bada.

A.A.: Bestalde, badaude kotxe-rik ez dutenak. Legutiora joateko gatx badute, zer esanik ez joan-etorrian ibili behar badute. Gainera, pediatria zerbitzua 08:30etik 10:30era dago Legution.

EA.: Orain gutxi umeak sukar handia izan zuen eta pediatria batek ikustea eskatu nuen. Baina horren aurretik erizainak ikusi behar zuela erantzun zidaten, berak medikuarengana bideratzeko. Horixe zela proto-

koloa. Umea ondo egon ez arren, kotxean bueltaka ibili behar izan nuen, Legutiora, Otxandiora eta Gasteizera joateko.

A.A.: Egoera honek lan karga handiagoa sortzen die herriko familiako medikuari eta Gasteizko pediatarri.

Udalean 150 sinadura aurkeztu dituzue. Zer eskatu duzue?

A.A.: Udala Osakidetzagaz elkartzea, egoerari irtenbidea emateko. Gainera, ez dakigu noiz arte iraungo duen horrela. Gurasook larri gaude eta erantzun bat gura dugu. Badakigu hartu-emanen jarri direla.

E.A.: Bermatu beharreko zerbitzua da, nahitaez.

Eta orain zer?

E.A.: Udalgaz hartu-emanen jarraituko dugu, eta egoeraren arabera aukerak aztertuko ditugu. Onartezina da hiru herri pediatria zerbitzurik barik egotea. Herri txikietako zerbitzuak murrizteko joerak arduratu egiten nau. Eta batez ere zerbitzu horiek desagertzeak, herri edo hiri handietan zentralizatzeko. Zergak berdinduz erantzun ditugu eta oinarrizko zerbitzuak bermatu behar zaizkigu.

Ortu ludikoetan izena emateko aukera zabaldu dute lurretan

Azaroaren 27ra arte aurkeztu daiteke eskaria HAZn. Bost urteerako lagapena egingo du lurretako Udalak.

A.Basauri IURRETA

Iurretako Udalak Iturburuko 75 metro koadroko ortu ludikoetarik bat eskuratzeko aukera zabaldu du berriro. Bost urterako emango dira baratzeak, eta lehentasuna izango dute aurre-

tik horietako baten erabilpena izan ez duten herritarrek (famili unitatea barne). Azaroaren 27ra arte eman daiteke izena HAZn.

2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra bitar-

tean iraungo du lagapenak. Eta, erabiltzaileek sei orduko ikastaro bat egingo dute baratze-zaintza ekologikoari eta instalazioen erabilera egokiari buruz. Jakitera eman dutenez, ortuaren mantentze-lanetarako eta erabiltzaileei aholkuak emateko monitore bat egongo da. Eta, udalak ortua lantzeko beharrezko tresnak eta makinak jarriko dituzte eskura. Proiektuak "ingurumenarekiko errespetua eta biztanleria aktiboaren parte-hartzea sustatu" gura ditu.

Etxea alokatzeko gazteentzako laguntzak, lurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak eskainiko ditu gazteentzat, aurten ere. Herrian erroldatutak 18-35 urte arteko gazteei zuzendutako laguntzak dira, eta azaroaren 16tik abenduaren 15era arte egin daitezke eskariak. Udalak 9.000 euroko diru-poltsa lotu du horretarako.

Dirulaguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairu-prezioaren % 50 izango da, komunitate-gastuak eta etxebizitza-eranskinak kenduta. Hartara, gehienez, hilean 250 euroko laguntza lortzeko aukera dute gazteek. Helburua da, "gazteei emantzipatzeko eta helduen munduan sartzeko prozesuan laguntzea. Aldi berean, gazteek herrian alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko sustatzea". HAZn eskuratu daitezke deialdirako oinarriak.

Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

Smurfit Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

Gorpuzki bat desobiratu dute Saibigain inguruan

Euskal Prospekzio Taldeko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek egin zuten desobiratzea joan zen domekan. Indusketan identifikazio txapa bat aurkitu zuten; hezurak norenak diren jakitea erraztu dezakeen arrastoa izan daiteke

J.Derteano MAÑARIA

Euskal Prospekzio Taldeko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek gorpuzki baten desobiratzea egin zuten domeka goizean Saibigaineko inguruan, Espainiako gerra zibilari lotutako hobi batean. Hobi hori Mañaritik Saibigainera doan aldatseko gunen leun batean dago.

Lan hauek orain hiru urte hasi zituzten. Orduan hiru gorpuzki atera zituzten, eta aurreratu zuten, beste bi geratu ziren ateratzeko. Domekan egin zuten lehenengo desobiratzea, beharrezko baimenak lortu eta gero. Desobiratze biak domekan bertan amaitzea zen asmoa, baina hobiaren tamainagaitik eta kendu behar izan duten lur kopuruagaitik beste baterako utzi dute bigarrena.

Orain, ateratako hezurak norenak diren identifikatzeari ekin go diote, egitasmo honen azken helburua gorpuzkiari izen-abizenak ipintzea eta bere senideei bueltatzea delako. Euskal Prospekzio Taldeko Eneko Madariagak



Joan zen domekan egindako desobiratzea.

DNA laginak ateratzea "gatxa" izango dela adierazi du, baina indusketan identifikazioa erraztu dezakeen bide berri bat zabaldu zuten. "Identifikazio txapa bat aurkitu genuen eta zenbakia argi ikusten da", azaldu du Madariagak.

Mañariko Udaleko alkateorde Agustin Sarrionandia indusketan izan zen. "Eskerrak ematen dizkiegu desobiratze hau posible egin dutenei, eta memoriaren aldeko konpromisoa berresten dugu", esan dute udaleko iturriek.



Andasto dantza taldearen saioa.

On Martin jaiak ospatuko dituzte Atxondon, askotariko ekintzekin

Tailerrak, taloak, dantza saioa eta Hektor Folken eta Gorka Valdesen musika egongo dira, gaur, Apatan

J.D. ATXONDO

Atxondok On Martin Eguna ospatuko du gaur, azaroak 14, Apatako plaza inguruan. Atxondo Kultura Mahaia, herriko eragileekin elkarlanean, egitarau zabala prestatu du egunerako. Familientzako tailerrak hasiko dute arratsaldean, 16:00etan. 18:00etan taloak egongo dira bertaratzen direnentzat, eta 19:00etan Andasto dantza taldearen saioa hasiko da. 20:00etan Hektor Folken eta Gorka Valdesen emanaldia hasiko da.

On Martin ospatzea aspaldiko ohitura da. Pandemiako etenaren

ondoren, Atxondo Kultura Mahaia orain hiru bat urte berreskuratu zuen, hauspo berriagaz eta egitarau zabalagoagaz.

Martzaan ere ospakizuna

Martzaa auzoan ere ospatzen dute San Martin eguna. Aurten azaroaren 15ean egingo dute jaiak, zapatuan. 11:00etan, Axpetik Martzaa kalejiran irtengo dira. Mezaostean luntxa izango dute, eta, ondoren, Axpera bueltatuko dira, Atx-Azpi elkartean bazkaltzeko. Egun osoan zehar musika izango da Hektor Folk eta Gorka Valdesen eskutik.

Negoiazio prozesuak aurrera jarraitzen du Fosroc enpresan

Enpresako zuzendaritzak 18 kaleratze eta zazpi erretiro aurreratu proposatu ditu azken bileraren ondoren

J.D. IZURTZA

Izurtzako Fosroc enpresako enpresa-batzordeak eta zuzendaritzak beste bilera bat egin zuten, atzo, negoziazio prozesuaren barruan. Zuzendaritzak aurkeztutako proposamen berriak hamazortzi langile kaleratzea jasotzen du. Horien artean daude Toledoko lantokira lekualdatzea proposatu zaien zazpi langileak, hara joateari uko egin diotelako. Fosroceko beste zazpi behargini erretiro aurreratua eskaini diete negoziazioaren barruan, LABen

esanetan. Urte hasieran, Saint-Gobain multinazional frantziarrak Fosroc enpresa eskuratu zuen eta jabetza-aldaketa horren ondoren etorri dira lanpostuen inguruko mugimenduak. Hasierako planteamenduan, zuzendaritzak 22 kaleratze aurreikusten zituen, eta beste zazpi langile Toledoko Villaluenga de la Sagra herriko lantokira lekualdatzea. Han, Fosrocen antzeko produktuak egiten dituzte eta multinazionalaren asmoa da Izurtzako jarduera hara eramatea.

Sukaldea kolektibizatzeako tailerrak Amillen

J.D. ATXONDO.

Arrazolako Amillena Bentan sukaldea kolektibizatzeako tailerrak antolatuko dituzte. Bakoitzean plater bat prestatuko dute otordu berezi baterako. Hiru tailer daude, eta bakoitzean egun biaukeran. Lehenengo saioa asteon dute; bildotsa saltsan prestatuko dute. Bigarren saioa zapatuan izango da (10:00-12:00). Bigarren tailerra azaroaren 19an (17:30-20:00) eta azaroaren 22an (10:00-12:00) da; txipiroiak bere tintan prestatuko dituzte. Hirugarren tailerra azaroaren 26an (17:30-20:00) eta azaroaren 29an (10:00-12:00) izango da, eta *shiitakez* beteriko pikillo piperrak kozinatuko dituzte (izen emateko: 94 627 89 07).

Atxondoko Udalak 2026ko aurrekontu fiskalak onartu ditu

Oro har, tasek % 2ko igoera izango dute zerbitzuen prestazioagaitik, eta zergak, oster, izoztu egingo dira

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak ezohiko bilkura egin zuen atzo, 2026ra begira ordenantza fiskalak onartzeko. Oro har, zerbitzuen prestazioagaitik tasak % 2 igoko dira, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) igoerara egokitze; zergak, oster, izoztu egingo dira, udalak ohar batean jakinarazi duenez. Urteetan berrikusi barik zegoen zenbait tasaren eguneratzea ere jaso da. Horien artean dago hilerriko ehorzketa eta desobiratze tasa. "Kasu horretan, egokitzea egin da udal zer-

bitzuaren kostu erreala eta herriarrei aplikatzen zaien tarifa parekatze, udalaren kontu-oreka bermatzeko helburuagaz", azaldu dute.

Gainera, igerilekuaren udako bonuari dagokionez, lerro berri bat sortu da jubilatutako pentsiodunentzat. Orain arte, talde horrek 18 urtetik gorako prezio bera ordaintzen zuen; baina datorren urtean % 40ko beherapena aplikatuko da. Horrela, 31 euroko bonua ordainduko dute; hau da, 18 urtetik beherakoek ordaintzen duten prezio bera.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangoan

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango. Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Sola pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 ID Durango

**Psikologia**



Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 ID Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAILA ZABALA
AIZMENDI
11567 kot. zk.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometrizentroa.com

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

AZAROKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Joan zen domekako argazki bat.

"Azoka ohiko hitzordu bihurtu da herritarren agendan"

Abadiñoko azokak bigarren urteurrena bete zuen joan zen asteburuan. Ekoizleek eta artisauek ez diote sekula hutsik egin hile bakoitzeko bigarren domekari, ezta herritarrek ere. Azokaren antolatzaileek "oso balorazio positiboa" egin dute

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Urte bi joan dira eskualdeko baserritar eta ekoizleek Zelaia-ta auzoan azoka bat antolatzea erabaki zutenetik. Ezerezetik sortu zuten dena, esperimientua ondo irtengo zen jakin barik. Baina antolatu ziren, eskualdeko ekoizleek indarra batu zuten, eta halantxik, hile bakoitzeko bigarren domekari hutsik egin barik, ondo egin-dako lanaren fruituak jasotzen hasi dira orain. "Azokaren oso balorazio positiboa egiten dugu. Modu batera edo bestera, jendeak bere ohituretan sartu du azoka hau. Agenda-planak antolatzen dituztenean aintzat izaten dute data hau, eta den-

borak erakutsi digu jendea erosketak egitera datorrela hona. Urte askoan hemen izango garelakoan gaude", adierazi dute antolatzaileek.

Azokan esku hartzen duten ekoizle egonkorrek elkarteak eratu dute oraintsu, eta hitzarmena sinatu dute Abadiñoko Udalagaz. Horri eskerrak, trinkotasuna eskaini gura diote azokari, oinarrizkoak izan daitezkeen bitartekoak eta azpiegitura bermatzeko. Horrek guzti horrek azokako giroan eta harreran eragin dezakeelakoan daude ekoizleak. "Urte hauetan bietan konturatu gara bezero fidela dugula, erosketak egitera datorrena. Eta badago

beste bezero mota bat, herrikoagoa, erosketak egitera etorri, gero erosketak etxean utzi, eta berriro ere azokako girora bueltatzen dena. Uste dut alde guztiak gaudela pozik. Ekoizleek euren esker ona adierazi dute eta herritarrek ere halako azoka bat egotea eskertzen dutela uste dugu", azaldu dute antolatzaileek.

Hurrengoa, abenduak 14

Azokak abenduan izango du hurrengo hitzordua, bigarren domekan, betiko legez. Antolatzaileek iragarri dutenez, aurrerago Aita Mari laguntza humanitario-ko proiektuko kideak gonbidatuko dituzte plazara.

EAJ kritiko Trañaerrota kaleko lokalaren gestioagaz

M.Z. ABADIÑO

Iraileko osoko bilkuran, Geredi-aga Elkarteari Traña-Matienako Trañaerrota kaleko lokal bat uzteko prozedura abiarazi zuen udalak. Orain, prentsa ohar baten bitartez, EAJk EH Bilduren erabakia kritikatu du. Esan du ez dela parte-hartze prozesu zabalik egin herriko kultura eta kirol elkarteekin. "Ez gaude ados EH

Bilduk abadiñarren parte-hartze-rik eta adostasunik barik Geredi-aga Elkarteari lokal bat 25 urterako utzi izanagaz", azaldu du Mikel Garaizabalek.

Bestalde, proiektu posibleak aztertze denbora eskatu zutela esan dute, eta izapidea "denbora gutxian, korrika eta presaka" egin dela, "koporazioaren adostasunik barik". "Logikoa zen erabileraren bideragarritasunari buruzko txosten teknikoak izan arte itxarotea", gaineratu dute jeltzaileak.

Emakumeentzako autodefentsa feminista tailerra Mallabian

M.Z. MALLABIA

Gaur, azaroak 14, Emakumeentzako Autodefentsa Feminista hastapen tailerra egongo da Mallabian. Kontzejuzarren egingo dute, 16:00etatik 20:00etara bitartean. SAFO eskolako Esther Lopez kidea izango da dinamizatzailea, eta alderdi psikologikoa eta fisikoa lantzea izango da helburua.



ZORNOTZA Ayerdi prentsa denda



Azaroan Bizkaia Bike eskualdean

Azaroaren 14an, Minbiziaren Aurkako II. Bizkaia Bike ekimena hasiko da. Hilaren 23ra bitartean, 30.000 kilometro egitea espero dute prostatak minbiziari aurre egiteko. Eta-petariko bat Bermeotik Durangora izango da, hilaren 15ean, eta 16an, Iurretako Udalak antolatuta, kilometro gehiago egingo dute prostatak minbiziaren aurka.



BIZKAIKO MINBIZIAREN KONTRAKO ERAKUNDEA

DURANGALDEA ASTEON

Umeen mendi irteera Azkorrara, azaroaren 16an

IURRETA Azaroaren 16rako, Azkorrara mendi irteera antolatu dute umeentzat. 10:00etan irtengo dira Iurretako plazatik, eta 9 kilometroko ibilbidea egingo dute. Antolaketa errazteko, antolatzaileek zaldai@hotmail.com helbidera idatzita izena ematea eskatu dute. Bestalde, informazio gehiago gura duenak ere helbide horretara idatzi dezake, edo 626 740 969 telefonora deitu.



Durangoko merkatuan lau postu aukeran

DURANGO Durangoko merkatu plaza berriua martxan da, eta bertan elikadura jardueretarako lau postu daude aukeran, baita arrandegi bat zabaltzeko aukera ere. Interesdunek azaroaren 24ra arteko epea izango dute proposamenak udalari aurkezteko. Negozio proposamenak udalaren kontratatzailearen profilean egin behar dira, durango.eus atarian.



Jada salgai dago 2026ko ANBOTOren egutegia

DURANGALDEA ANBOTOk dagoeneko prest du Lucia Meruelo berrizarraren argazkiekin osaturiko 2026ko egutegia. Denda hauetan erosi daiteke: Abadiñon Petiterenean eta Abadiñoko estankotan; Atxondon Itziar tabernan; Berrizen Egun On okindegian; Durangon Etxebarria prentsa dendan eta Hitz liburu dendan; Elorrion Txokolaten; Iurreta Kopistegian; Garaiko, Izurtzako, Mañariko eta Mallabiko Herriko Tabernetan; Otxandion Aspe estankotan; Zaldibarren Imendian; eta Zornotzan Ayerdi prentsa dendan.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN
CARLOS GARCÍA
PP

Denok elkarrekin Durangoren alde

Durangoko azken udalbatzaren bilkuran eskatu dut lehenbaileren bileratik egin dadila udalaren alkateak ordezkatura—eta Bizkaiko Foru Aldundiaren—diputatu nagusiak ordezkatura, artean, Durangoko biztanleentzat oso garrantzitsuak diren hiru gai eztabaizatzeko.

Bat: Autobideko bidesari bidegabeak eta durangar bakoitzak 2026an ordainduko dituen 396 euroak ezabatzea edo gutxienez murriztea, hau da, hilean 33 euro deskontua barne.

Bi: Foru Aldundiak Durangoko Udalari ematen dion finantzaketa eskasa hobetzea—bakarrik 26 milioi euro—Durangaldeko 100.000 biztanle baino gehiagori eskaintzen dizkiegun zerbitzu publiko zaibalarako.

Eta hiru: Mikeldiko idoloa Durangora itzultzea; gaur egun Bilboko museo batean ahaztuta dago.

Eta eskatzen dut, halaber, alkatea ez dadila bakarrik joan Aldundiarekin dugun bilera horretara. Erreklamazio horiek indar handiagoz defendatzeko, proposamen hauek babesten ditugun alderdi guztietako zinegotziek lagundu beharko genioke, batasunak indarra egiten duelako eta elkarrekin indartsuagoak izango garela Durangorentzat eta durangarentzat onena eskaintzeko.



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

A25



**INDARKERIA
MATXISTAREN
KONTRAKO
EGUNA**

A25NEMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
MATXISTA DESAGERRARAZTEKO
NAZIOARTEKO EGUNA**ASTEAZKENA 19****EHULEAK
PRESTAKUNTZA****Ikastaroa**17:00-18:30 Olakueta Etxea
La violencia racista en la
cotidianidad, mitos, bulos
y prejuicios (Gaztelera)**OSTEGUNA 20****"HEMEN BAI
BORROKA EGITEN DA"**Film laburra eta solasaldia
Euskal Fonda eta El
Salvadorreko
Garapenerako Kolektiba
Feministarekin
19:00 Kultur Etxea**IGANDEA 23****"ACOSADAS"****Zinema**19:00 Kultur Etxea
Helduak 5€ / Haurrak 3€**AZAROAK 25****MUG feminista >ADI
MOBILIZAZIOEI**Ekintzak eskolatan
Hezikidetzak taldearekin
eta Talde Morearekin
Tailer feministak
haurrentzat eta
nerabeentzat
Kultur Etxe zaharrean:
Zigiluak zizelkatzea eta
estampatzea
(17:00-19:30, +8 urte)
Plastiko magikoak pin-ak
giltzatzekoak eta iman-ak
(17:30-19:00, +12 urte)
* Izen-ematea beharrezkoa**ASTEAZKENA 26****FOR SAMA (Euskarazko
azpituak)****Dokumentala**18:30 Kultur Etxea
Doan**LARUNBATA 29****"IPUINETATIK
JABEKUNTZARANTZ"**Ipuin kontalaria
12:15 Kultur Etxea
Itziar Sáenz de Ojerekin
Euskaraz**"AMAK"Txalo Produzioak****Antzerkia**19:00 Kultur Etxea
Euskaraz 6€**IGANDEA 30****"BIHOTZ MUSEO BAT"****Bertso Saioa**12:00 Kultur Etxea
Euskaraz 6€ (bazkideak 4€)

ABENDUA

LARUNBATA 13**CLOWN: "LAS CHARLAS
DEL AZUCARILLO"****LA COUCHERS****Antzerkia**19:00 Kultur Etxea
Gaztelera 6€ (bazkideak 4€)Herriak irri dei egiten diugu
parte har dezaz!**AZAROAK 25**Indarkeria matxista ezabatzeko
Nazioarteko Eguna**AZAROAK 18
IBARRETXE
KULTUR ETXEA****18:00
HITZALDIA**Emakume
nagusiak eta
indarkeria.
Arrate Ruiz-Oria
Esparta.Indarkeria
matxistan aditua den
osasun-psikologoa.**AZAROAK 24
IBARRETXE
KULTUR ETXEA****18:00
ZINEFORUM:
INDARKERIA
ZINEMAN**Zineman
indarkeria
matxista
identifikatzen
dugu, baita horri
aurre egiteko
agertzen diren
estrategiak ere.**AZAROAK 25
ASKONDO****18:00 Irakurketa
instituzionala
eta ondoren
Manifestazioa****Iurreta**
Emakumeen Lasterketa**Auskari**
Gizartearen Kontakabidea

Garazi Sampedro DKTko kidea eta Arrate Igarza Izan Inurrikoa.

"Izan Inurri babesgune bat da"

GARAZI SAMPEDRO ETA ARRATE IGARZA

Azaroaren 23an Emakumeen Lasterketa egingo dute Durangon; 11:00etan hasiko da, atletismo pistan. Inskripzioetako diruaren zati bat Izan Inurri taldeari emango diote

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Garazi Sampedro eta Arrate Igarza herrikideak dira, lagunak. Baina orain ez ditu laguntasun horrek batu, Durango Kirol Taldeak antolatzen duen Emakumeen Lasterketak baino. Aurtun, izen emateetan jasoriko diruaren zati bat minbizia duten emakumeek osaturiko Izan Inurri elkarteari ematea erabaki du Durango Kirol Taldeak. Igarza inurri horietariko bat da. "Minbizia duten emakumeek, emakume izate hutsa gaitik indarkeria mota ezberdinak pairatzen dituzte, eta aurtun horri ere eman gura diogu ikusgarritasuna", azaldu dute.

Hasteko eta behin, egun batzuk baino ez dira falta aurtengo Emakumeen Lasterketarako. Garazi, imajinatzen dut azken prestaketekin buru-belarri ibiliko zaretela.**Garazi Sampedro:** Aste batzuk dira antolakuntzan hasi ginenetik, eta azken kontuak lotzen gabiltza, baina dagoeneko dena martxan da.**Aurtun, inskripzioetako diruaren zati bat Izan Inurri elkarteari emango diozue. Ez dakienarentzat, Arrate, zer da Izan Inurri?****Arrate Igarza:** Izan Inurri Julene Illarramendik eta Miren Cuerdok sortu zuten, 2019an, minbizia pasatu dugun edo pasatzen dabiltzan pertsonen artean dauden hutsuneak betetzeko. Osasun sisteman hainbat hutsune dago, eta, gainera, minbizia oraindino ere tabua da. Hutsune horiei ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik erantzuteko sortu zen taldea. Baita minbizia zuzenean edo zeharka jasaten duten herriarrei laguntzeko ere.**Zuk zelan ezagutu zenuen Inurri?****A.I.:** 2023an odoleko minbizi mota bat diagnostikatu zidaten, Hodgkinen linfoma. Kolpe gogorra izan zen. Prozesu gogor bati ekin nion. Tratamendua irailan amaitzen nuen eta uda horretan Izan Inurri taldea ezagutzeko aukera izan nuen, sare sozialen bitartez eta "zer da hau?" etorri zitzaidan burura. Kasualitate bat izan zen eta eurekin hartu-emanen jarri nintzen. Harrezkero inurri naiz. Niretzat Izan Inurri ezagutzea ederra izan zen; azken batean, bizipen gogor antzeratsuak dituztenek hobeto elkar ulertzen dute. Inguruan lagunak, familiakoak eta gertukoak badituzu ere, prozesuan bakardade handia sentitu dezakezu. Minbizia bizitzen dabilenari eta inguruan kasuren bat duenari Izan Inurrira joateko gonbita egiten diot. Akon-



painamendu ederra da eta babestuta sentituko da. Horrelako momentu gogor batean Inurrik eskaintzen duen akonpainamendua funtsezkoa izango da.

A.I.: Inurri babesgune bat da minbizia gertutik bizi dugun pertsonontzat; gainera, elkar-teari eskerrak sare bat eratzen da. Azken batean, hizkuntza berean berba egiten dugu, nahiz eta minbizi diferenteak edo prozesu guztiz diferenteak bizi izan. Gauza askotan, sentipen bere-tsuak bizi izaten ditugu. Proze-suak gogorrek dira, diagnostikoa esaten dizuten momentutik edo proben emaitzak itxaroten zau-zen une horretatik, zer duzun ere ez dakizunean.

Zer antolatzen du Izan Inurrik?

A.I.: Izan Inurrik hainbat gau-za antolatzen du; besteak beste, berbaldiak, tabu asko apurtzen duten bertso saioak, eta erreti-roak minbizia pasatu dutenen-tzat. Orain, gainera, talde tera-piekin ere hasi gara Ainara Urdanpilleta psikologoagaz. Horrez gainera, elkarteak sare sozialetan ere badu presentzia, eta Usurbilen lokala du. Eta, lehen aipatu dudan moduan, elkarte osasun sistemak dituen hutsuneak betetzen dabil.

Bere txikitasunetik, DKTK elkarta-sun keinu polit bat egin eta Ema-kumeen Lasterketan jasoriko di-

ruaren zati bat dohaintzan emango du. Zelan bururatu zitzaizuen ideia, Garazi?

G.S.: Elkartasunetik sorturiko ideia da. Lasterketa kausa baten aterkipean egiten dugu eta iku-si genuen Izan Inurriren filoso-fiak gure lasterketagaz bat egi-ten duela. Gainera, ikusten genuen korrika egiteak edo kirola egiten hasteak, onura fisikoez gainera osasun menta-lean ere eragin positiboa ekar-tzen duela. Eta, jakina, gure lasterketan edozein emakume-

"AURTEN LANDAKOKO ATLETISMO PISTAN HASI ETA AMAITUKO DA LASTERKETA"

"AZAROAREN 23KO LASTERKETA ALDARRIKATZEKO ETA ONDO PASATZEKO TOKIA DA"

rentzat dago lekua. Beharbada batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari ea zer erlazio duen minbiziak emakumeen aurkako indarkeriagaz. Badaude loturak. Minbizia duten emakumeek, emakume izate hutsa-gaitik indarkeria mota desber-dinak pairatzen dituzte, eta, horregaitik, aurten horri ere eman gura diogu ikusgarrita-suna.

Aldarrikapenetik asko duen arren, Emakumearen Lasterketak emakumeak kalera irten eta kirola eginez jai giroan ibiltzea ere badu helburu.

G.S.: Aldarrikapenak egiteko eta ondo pasatzeko egun bat da. Beti esaten dudan moduan, lasterketak ahalduztzeko balio behar du. Emakumeen Lasterketaren aitzakiagaz emakumeren bat kirola egiten hasten bada, bikain. Eta urte barruan kirolagaz duen zita bakarra bada ere, orduan ere bikain. Emakume guztiak dira ongi etorriak. **Eta zuek ikusiko zaituztegu azaroaren 23an Durangoko kaleetan korrika?**

G.S.: Niri lan egitea tokatzen zait. Mikrofonoagaz giroa sortzea

izango da nire eginbeharra. Baina ikusi dut Arratek dagoeneko eman duela izena (barrez).

A.I.: Eman dut, bai, eta inguruan ere banabil zabaltzen familia-koen, lagunuen eta elkartekoen artean. Izan Inurri denerik dago; batzuek korrika egin dezakete, beste batzuek ez. Baina batzuek esan dute etorriko di-rela.

G.S.: Emakume guztiak anima-tu daitezela, ondo pasako dugu eta. Hori seguru!

Amaitzeko, aurten gainera laster-keta nobedadeekin dator.

G.S.: Aurten Landakoko atle-tismo pista hasi eta amaituko da. Lasterketak ibilbide berria izango du. Kilometroei dagokie-nez, aurreko urteetan ez zen 5 kilometrora heltzen, baina aur-ten borobildu egin dugu distan-tzia. Justu 5 kilometro izango ditu. Gainera, modu horretara atletismo pista publiko zabala-ri gerturatu gura diogu. Atle-tismo pista Durangon aparte geratzen den leku bat da askoren ustez. Eta herritarrei esan gura diegu hau denentzat dagoela zabalik, eta ez dela zertan at-leta izan pista erabiltzeko.

A25

EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIA EZABATZEKO
NAZIOARTEKO
EGUNA

Hiritar guztiak bideratuta:

AZAROAK 17

Hitzaldia (Gaztelaraz)

11:00 -13:00 Andragunea

17:00 -18:00 Plateruena

"Espazio digitalak eta nerabezaroan eta gaztaroan duten eragina: ziberindarkeria matxistei galga jartzea"

Carmen Ruiz Repullo.

AZAROAK 23

VIII. Emakumeen lasterketa

10:30 Lasterketa laburra
Landakoko atletismo pista

11:00 Emakumeen lasterketa. 4800m.

Emakumeentzat bakarrik.
Durango Kirol taldeak antolatuta.



AZAROAK 25

12:00 Indarkeria matxistak hil dituen emakumeen omenezko gunean, Ambrosio Meabe plazan.

Adierazpen instituzionala eta lore-eskaintza.

19:00 MOBILIZAZIOA - Andra Mari

Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak deituta.

AZAROAK 16

Hitzaldia (Elebiduna)

17:30-19:00 Elkartegia

"Hedabideen eta sare sozialen papera indarkeria matxisten erreparazioan".

June Fernandez

Talde zehatzei bideratutako ekintzak:

Cineforum Zugaza Zinemaren

How to have sex, Molly Manning Walker filmaren zuzendaria, Sortzen kontsultoria genero-indarkerian eta emakumeen ahalduztzean adituak gidatua.

Aurkezpena Andragunea

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduteko eta koordinatzeko Durangaldeko II. Protokoloaren aurkezpena. / Protokoloaren asistentzia teknikoa (EDE Fundazioa)k zuzenduta. / Durangoko 3. sektoreko elkartei bideratuta.



AZAROAK 29

Cineforum

11:00 Zugaza Zinema

Custodia compartida, Xavier Legrand filmaren zuzendaria

Oihane Artetxe gidatua.

Durangoko Udaleko Andragunea ANDEREAk elkartearen kolaborazioarekin.

Antzerkia

19:00 San Agustín Kultur Gunea.

¡GUAPA! *El Mono Habitado*.

Ikusten ez den edertasunari buruzko ikuskizuna.



AZAROAK 25

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Gure herrian indarkeria matxistaren inguruan
elkarrekin hausnartzeko kafe-solasaldiak

AZAROAK 20 - 18:00

ERROTA KULTUR ETXEA

**Indarkeria matxistari
aurre egitea,
komunitate osoaren
erantzukizuna.**

"Ellas hablan" filmearen
prolektzioa eta solasaldia

Filmea gaztelaniaz
eta solasaldia elebitan

ERROTIK KOOPERATIBA FEMINISTA

AZAROAK 24 - 18:00

ONLINE

**Indarkeria
matxistaren aurrean,
Abadiñoko
gizonak zer?**

Gizonen zuzendutako
tailerren aurkezpena

Elebitan

Itzena-eremateko:
jabekuntzaeskola@abadiño.eus

ERROTIK KOOPERATIBA FEMINISTA

AZAROAK 25

**ADI MUGIMENDU
FEMINISTAREN
MOBILIZAZIOETARA!**

AZAROAK 26 - 18:00

ERROTA KULTUR ETXEA

**Consentimiento,
deseo y libertad
sexual**

Hitzaldia eta solasaldia

Gaztelania

NEREA BARJOLA



AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 8, 15, 22 eta 29

16:30-18:30 Tailerra: Ongizate
emotionala Kontzejuzarreen.

Dinamizatzailea: Natalia Willen.
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarteak.

AZAROAK 14, ostirala

16:00-20:00 Emakumeentzako
autodefentsa feminista hastapen
tailerra Kontzejuzarreen.

Dinamizatzailea: Esther Lopez (SAFO
eskola kidea) - Hitzkuntza: Gaztelera -
Antolatzailea: Udala-Berdintasun
Kontseilua

AZAROAK 25, asteartea

12:00 Kontzentrazioa
frontoiko aldapan

• Eskola kideen leloak irakurriko dira eta
amaitzeko "indarkeria kontrako abestia
abestuko da".

• Adierazpen instituzionalaren irakurketa
Antolatzailea: Udala-Berdintasun
Kontseilua eta eskola.

19:00 "Nemen bai, borroka egiten da"
film laburra eta solasaldia
Kontzejuzarreen.

Antolatzailea: Udala-Berdintasun
Kontseilua eta Eskola Fonda.

AZAROAK 30, igandea

12:30 "Hace calor y somos nosotros"
ikuskitzuna Kontzejuzarreen.

16 urtetik gorakotzat
Hitzkuntza: Gaztelania
Antolatzailea: Nahikari Emakume elkarteak.



"Homofobia sotila da kirol arloko LGTBfobia adierazpenik ohikoena"

GARAZI BERAMENDI ALVARADO HIRUKI LARROXAKO KIDEA

Elorrioko Berdintasun Sailak antolatuta, herriko kirol taldeak LGTBfobiaren prebentzioan
eskolatuko dira Beramendiren eskutik. Eguaztenean izango dute lehenengo jardunaldia

Ekaitz Herrera ELORRIO

Elorrioko kirol elkarteek LGTBfobiari aurre egiteko prestakuntza saio solte batzuetan parte hartu dute orain arte, eta hemendik aurrera jarraikortasun handiagoagaz emango diete segida jardunaldi horiei. Hiruki Larroxako Garazi Beramendi Alvaradok (Gasteiz, 1993) hiru saio gidatuko ditu. Azaroaren 19an izango da lehenengoa.

Zein da egitasmo honen abiapuntua?

Prozesu parte hartzaile bat egingo dugu, eta, horri eskerrak, LGTBfobiaren prebentziorako, detekziorako eta erantzunerako estrategiak diseinatu ditugu modu kolektiboan. Elorrioren gertatzen diren egoerak aztertuta, kirol eremuko jarrera eta ohiturak identifikatu ditugu. Hor mugitzen dabilena ikusi nahi dugu, gero horren araberrako tresna bateratuak sortzeko. Hau guztia 2024an sortu zen, Elorrioren lanketa saio bat egin genuenean. Gerora, aurtengo ekainean beste saio bat egin dugu, eta ikusi genuen jardunaldia motz geratu zela. Hori horrela, orain hiru saioko prozesu jarraitua egingo dugu.

Elorrioko zenbat kirol klubegaz egingo duzue bidea?

Hamabost kirol talderi egin diegu gonbita parte hartzeko. Gutxi gorabehera, taldeen erdiek baieztatu dute saioetan parte hartuko dutela, eta beste erdiek zalantzan daudela adierazi dute. **Lanketa honek badu adin tarte zehatzik?**

Gonbidapena zabala da, eta, horrenbestez, eskola kiroleko klubei zein federatutako kirol elkartei zuzenduriko parte hartze prozesua da. Hori bai, eskola kiroleko taldeen kasuan, delegatuak edo arduradunak etorri izan dira hona, denak



Garazi Beramendi.

helduak.

Orain arteko saioetan parte hartu duten kirol elkarteek azaleratu dute LGTBfobiarik, bazterkeriarik edo esku hartzeko premiarik?

Modu zuzenean ez zaigu hala-korik iritsi, baina iazko eta

**"EREMU ATSEGINAK
SORTU BEHAR
DITUGU LGTB
HERRITARRENTZAT,
BAITA KIROLEAN ERE"**

ekaineko aurrelanketek hainbat gai identifikatzeko balio izan zuten. Horietariko bat segurtasun eta ikusgarritasun falta izan zen. Eta identifikatutako beste kontu bat isiltasunarena da, normalizatutako komentarioena. Normalean, eraso zuzenak ez dira ohikoak izaten hain-lako esparruetan. Zeharkakoak, beharbada, ohikoagoak izaten dira. Horrenbestez, kontua ez da kasu zehatz bati aurre egitea, lanketa orokortasun bati begira egitea baino.

Zeintzuk dira LGBT pertsonen kirol eremuan sentitzen dituzten egoera zaurgarriak ohikoenak?

Hemen asko hitz egin dezakegu heteroarauari eta maskulinitate hegemonikoari buruz. Baita horrek guztiak roletan eta estereotipoetan eragiten duen presio sozialari buruz ere. Normalizatutako komentario ugari dago kirol esparruan, homofobia sotilaren erakusgarri direnak: "maritxua" edo *nena-za*, adibidez. Horiek izan daitezke ohikoenak, eta taldekako kirolean gertatu ohi dira normalean, entrenamenduetan zein partiduetan. Horrekin batera, aldagelak ere badira tentsio iturri, pertsona ez-bitarrentzat batez ere. Eta gero, erreferente falta handia dago. Gorengo mailako kirolean ikusten dugu hori, baina baita maila apalagoko taldeetan ere: LGBT kirolarien presentzia oso urria da. Horrez gainera, prestakuntza eta protokolo falta handia dago. **Egoera horiek kirol batetik bestera aldatzen dira?**

Bai. Maskulinizatutako kirole-tan, emozioa, indarra eta lehia-kortasuna baloratzen diren



Garazi Beramendi Elorrioko kirol elkarteetako kideekin lanketa egiten. ELORRIOKO UDALA

kirole-tan, era nabarmenean hazten dira homofobia esplizitua eta sotila. Bestalde, emakumeentzat jotzen diren kirole-tan hori ez da hainbeste gertatzen, baina hor lesbofobiarekin eta emakumeen sexualizazioarekin topo egingo dugu. Azken finean, kirol talde bakoitzak bere balioak eta kargak ditu, eta horiek guztiek LGBT-fobiaren forma eta intentsitatea konfiguratzeko erabakitzen dituzte. Ez dira indarkeria berdina igeriketa eremu batekoa eta futbol zelai batekoa. Desberdinak dira, en-

trenatzaileen eta gazteen arteko hartu-emanetan zein aldagelatan. Hala ere, oinarri bera dago kirol guztietan: zuzeneko indarkeria ez da hainbeste ikusten; zeharkakoa, ordea, bai.

Zelan heldu horri guzti horri? Zer tresna zabiltzate aplikatzen?

Lehen esan dudana bezala, prebentziorako, detekziorako eta erantzunerako lan egiten gabilta. Eta hor, alde batetik, lan pertsonala dago, norbere kontzientzia hartzetik hasten dena. Gero, talde mailako haus-

narketa dago, eta, azkenik, maila instituzionala, behar-bada protokoloak eta neurriak ezarri ditzakeena klubaren barruan. Izan ere, klubaren tamaina txikiagoa ala handiagoa izango da kasu bakoitzean, eta klub bakoitzeko ezaugarriak ere desberdinak izan daitezke. Horregatik, kirol klub bakoitzak bere esparrura eraman behar-kotu lanketak. Saiotetan talde dinamikak egiten ditugu, kasu praktikoak aztertuz. Autodiagnostikorako tresnak ere bagabiltza sortzen, klub bakoitzak bere barruko hausnarke-ta egiteko.

Halako lanketak beste herri batzuetan egin izan dituzuen, ikusi duzue fruiturik? Kirol elkar-teetan eboluziorik?

Lana bukatutakoan baino gehi-ago, lana egin bitartean igartzen dugu hori. Oñatin, adibidez,

"EMAKUMEENTZAT JOTZEN DIREN KIROLETAN OHIKOAK DIRA LESBOFOBIA ETA SEXUALIZAZIOA"

gogoratzen naiz gauza asko azaleratu zela, eta hainbat neurri hartu zutela. Protokolo bat sortzea neurri bat da, adibidez. Azken finean, herrietan kontzientzia kolektibo handia badago, horri buruz hitz egiten baldin bada, hor aldaketarako espazioak zabaltzen dira. Abadiñon ere egin genuen lanketa bat, entrenatzaileekin. Hala-koetan beti pizten da zerbait, horrelako prozesuak martxan jartzean hitz egiten hasten ga-relako.

Lehen komentatu duzu Elorrioko kirol talde batzuk zalantzan zeudela jardunaldietara agertu ala ez. Egin gonbita.

Interesgarria da klub eta el-karte guztien esperientzia ja-sotzea, eta udala ere badabil bidea egiten elkarlan horretar-ako. Azken finean, eremu atseginak sortu behar ditugu LGBT herritarrentzat, baita kirolean ere. Taldean egin behar-reko lanketa da, eta norberak jarri behar du horretarako aletxoa. Izan ere, hau ez da zerbait isolatua. Gure baitan dago, eta, horrenbestez, denok arduratu behar dugu.

INDARKERIA MATXISTARI EZ!

AZAROAK 18	Dokumentala eta solasaldia: "Hemen bai, borroka egiten da" (Euskal Fondoak eta CFDL). El Salvadorreko giza eskubideen, genero-berdintasunaren eta eraldaketa sozialaren aldeko borroka feministari buruz.	Iturri Kultur Etxean 18:00
AZAROAK 19	Elorrioko kirol taldeei zuzendutako tailerra: "Kirol arloan LGBTIQ+ pertsonen kontrako jarrera matxistak ekiditeko protokoloa".	Iturri Kultur Etxean 17:00

Elkarretaratzea:
Azaroak 25, 19:00, Herriko plaza.
A25 honetan kirolean dagoen indarkeria matxista salatu nahi dugu.



Jone Guenetxea ZORNOTZA

Generoaren eta boterearen ikuspegia langai hartuko dituzte Zornotzan, *Neskamearen ipuina* nobela abiapuntu legez hartuta. Josune Muñoz Skolastikako ki-deak aztertuko du Margaret Atwood idazlearen lana jendaurrean.

Zelan ezagutu zenuen Margaret Atwooden lana?

Atwooden lana *Neskamearen ipuina* nobelatik ezagutu nuen. Feminista bilakatzeko prozesuan oraindino ez zegoen genero ikerketarik, baina Bizkaiko Emakumeen Asanbladan bazegoen bibliografia bat horretan trebatzeko. Lanetariko batzuk *El segundo sexo* eta *Política Sexual* ziren. Literaturaren barruan, Isadora Duncanen autobiografia eta Margaret Atwooden *Neskamearen ipuina* zeuden. Literatura aldetik liluratuta geratu nintzen. Maistra lana iruditu zitzaidan, eta literaturgile aparta. Hortik aurrera bere lana etengabe irakurri eta berrirakurri dut.

'Neskamearen ipuina' eta 'Testamentuak' distopiak direla esaten da, baina badute erreal bilakatzen dituen zeozer.

"Margaret Atwoodek etorkizun espekulatiboei buruz berba egiten du"

JOSUNE MUÑOZ ESKOLASTIKA

Margaret Atwood idazle kanadarraren 'Neskamearen ipuina' eta 'Testamentuak' lanak aletuko dituzte Zornotzan, azaroaren 19an, Zelaletako auditorioan, 18:30ean

Adwooden azierto handi bat haxe da: *Neskamearen ipuina* liburuan historian zehar gertatutakoak kontatzea erabaki zuen. Duen oinarri historikoagaz, ikusten dugu historia errepikatu egiten dela etengabe. Berak idatzi zuenean, faximoaren loraldia ez zebilen gertatzen orain-

dino, baina gerta zitekeen eta gertatzen ari da.

Atwoodek umore berezia dauka?

Umore fina dauka, batzuetan beltza edo gorria. Andre umoretsua da. Elkarrizketak egiten dituen oso era umoretsuan egiten ditu. Ironia eta sarkasmoa ere erabiltzen ditu. Berak dioe-

nez, kanadarra delako jokatzeko du ezaugarri horiekin, horregaitik bizi dutela dena distantzia horretatik.

Genero ikuspuntua eta boterea bere lanen oinarrian daude.

Boterearen ertz guztiak arakatzeko izan da bere lan osoaren helburu nagusia. Zer-nolako botere

harremana dugun naturagaz, zer-nolako botere politikoa erabiltzen dugun, generoen arteko botere harremanak eta abar. Botere berba bere hitz gakoetariko bat da.

Genero ikuspuntutik, Atwoodek zein ekarpen egiten du?

Bere lanek gogorarazten digute genero ariketa ezberdinak etengabe gertatzen ari direla, generoaren eta boterearen inguruko gizarte batean bizi garela, hain zuzen ere. Izan ere, generoa da pertsonak azpiratzeko lehenengo ardatza. Hori guzti hori ez ahazteko lan egiten ari da etengabe. Eta baita horren ondorio latzak gogorarazten ere. Zelanbaiteko profeta lana egiten duela esan daiteke.

Atwooden lanak irakurterazak izateagaz batera, konplexuak dira. Zelan deskribatuko zenuke bere literatura?

Estilistikoki maistra bat da. Esaldia primeran ezagutzen du eta esaldiagaz oso jolas estilistiko onak egiten ditu. Badaude esaldi konplexuak, adjektibazio itzela dutenak, baina badaki erritmoa arintzen, eta elkarrizketa sakonak egiten ditu, umorez eta ironiaz.

AZAROAK 25

AMOREBIETA-ETXANO · 2025

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ

INDARKERIA
MATXISTAREN
AURREAN, INDARTU
DITZAGUN SARE
FEMINISTAK

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARIK EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES



amorebieta
etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

Gainera, pertsonaia ahaztezinak sortzen ere badaki. Izatez, Atwood filologoa da, eta bere lanetan ondo igartzen da literaturaren nondik norakoak ezagutzen dituela, literaturaren aldordioak ezagutzen dituela. Oso ondo kontrolatzen ditu hizkuntzaren baliabideak. **Zorrotzako berbaldian, zer aurkituko dugu?**

Liburu mardul bi horiek komentatzeaz gainera, Atwooden aurreko eta ondorengo lanak ere aztertuko ditugu. Bere lanen bitartez, hain maistra handia nondik eta zelan sortzen den ulertzen ahaleginduko gara, eta zein izan den bere bilakaera. Atwoodek etorkizun espekulatiboei buruz berba egiten du. Gogoratu bere distopiak balizko etorkizunak direla. Ez ditu distopiak izendatzen, balizko etorkizunak baino. Gehiago ere baditu, eta berbaldian horiek ere errepasatuko ditugu.

Atwooden lana ezagutzen ez duenari nondik hasteko gomendatuko zenioke?

Baditu oso kontakizun liburu onak. Bere zapo eta neurria hartzeko, kontakizun liburu bat gomendatuko nioke. *Nueve*



Josune Muñoz.

cuentos malos, esate baterako, umore gorritz egindakoa. Baina beti neskamearen ipuina joateko gero. Hori irakurri beharrekoa da.

Azken lan hori plataforma ezagun batek telesail bihurtu izanak publiko zabalarengana heltzea eraging du.

'''NESKAMEAREN IPUINA' TELESAILAK OIHARTZUN HANDIA EMAN DIO LIBURUARI'''

Guk Skolastikan *Neskamearen ipuina* hasieratik programatu dugu eta beti egon da gure formakuntza ikastaroetan. Baina gurea salbuespena da, Margaret Atwooden jarraitzaile amorratuak izan naizelako eta nire gustua ere hortxe zegoelako. Elkarrizketetan egileak berak kontatzen

du *Neskamearen ipuina* zirkuitu feministetan irakurtzen zela batez ere Baina telesailak oihartzun handia eman dio.

Liburua aurretik landu izan duzunez, telesailak ondo jasotzen du bere esentzia?

Lehenengo denboraldia oso ondo dago, liburu osoa da. Hortik aurrera, liburu desbideratu egiten da. Esango nuke Atwoodek ez zeukala pentsatuta *Testamentuak* idaztea, hamarkadak joan zirelako liburu batetik bestera. Baina oso andre argia denez, ez zuen kritikatzeko telesailaren jarraipena. Eleberrian protagonistak ez du izenik. Juneren bilakaera oso maskulinoa da bigarren denboraldian, eta hirugarrenean eta laugarrenean, gizaki bat baino gehiago, superheroi bat ematen du. Eta hori ez da inondik inora protagonistaren benetako espiritua. Hortaz, Atwoodek oso ariketa inteligentea egin zuen. Pertsonaia nagusi bat hartu eta berak gura zuen bidetik bideratu zuen. Horrela, gidoigileak kritikatu beharrean, material literario bikaina eman zien hori zuzentzeko. Oso estrategia ona izan zen bere partetik.



AZAROAK 22

11:00 IHES GELA "BERDINTASUNAREN ALT XORRAREN BILA"

Olazar Frontoian

7-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta

Eman izena Liburutegian. Epea: azaroak 21

AZAROAK 25

12:00 MINUTU BATEKO ISILUNEA

Udaletxeko plazan

"Emakumeenganako indarkeriari ez" Jarraian, eskolako haurren adierazpenaren irakurketa

17:00 "BELLAS" LABURMETRAIAREN EMANALDI ETA SOLASALDIA

Liburutegi zaharrean

19:00 ELKARRERATZEA

Udaletxe Plazan

Dominika talde feminista deitua

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

PROGRAMAZIOA



Aitor Bizkarra finalaren bila Bermeoko saiora

BERTSOLARITZA Bizkaiko Bertsolari Txapelketa azken txanpan sartu da; zapatuan finalaurrekoen bigarren fasea hasiko da; Bermeon jokatu den finalaurrekoan, Aitor Bizkarra abadiñarrak egingo du bertsotan; 17:00etan izango da saioa, Artza frontoian

A. M. DURANGALDEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hiru saio geratzen dira: finalaurrekoen bigarren itzuliko saio biak eta abenduaren 20an Bilbon jokatu den final handia. Final horretan kantatzeko lehian Durangaldeko hiru bertsolari egongo dira: Aitor Bizkarra eta Txaber Altube abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarra. Hain zuzen ere, Bizkarrak zapatuan izango du sailkapena lortzeko aukera, Bermeoko Artza frontoian egingo duten saioan. Aisla Intxausti, Aitor Etxeberriazarraga, Ibai Amillategi, Onintza Enbeita eta Unai Mendiburu izango ditu bertsokide. Abadiñarra momentu gozoan helduko da, Urdulizko eta Zeanuriko saioak irabazita. Bigarren finalaurrekoa azaroaren 22an izango da, Markina-Xemeingo Uni frontoian. Han, Gorka Pagonabarragak eta Txaber Altubek egingo dute



Aitor Bizkarra Zeanuriko saioan.

bertsotan, Imanol Uribe, Jone Uribe, Oihana Bartra eta Xabart Gallettebeitiagaz batera.

Bi finalaurreko horietan erabakiko da zein zortzi bertsolari arituko diren Bilboko Casillan; saio bietako irabazleak eta euren

ondoren punturik gehien lortzen duten gainerako seiak.

Sarrerak salgai

Saio guztietarako sarrerak salgai daude bertsosarrerak.eus atarian.



'Scrooge eta mamuak'. KHEA ZIATER

Asteburuan Antzerkiñoren hamargarrena hasiko dute

ANTZERKIA Azaroaren 15etik 23ra bitartean Antzerkiño antzerki jaialdiaren 10. edizioa egingo dute Abadiñon

A. M. ABADIÑO

Zapatuan Abadiñoko antzerki zikloaren hamargarren edizioa hasiko da, Khea Ziaterren *Scrooge eta mamuak* lanagaz. Emanaldia 17:00etan izango da, Errota kultur etxean. Bestalde, domekan, Tela Marinera konpainiak *El inconveniente* taularatuko du, 19:00etan, Errotan.

Hamargarren edizio honetan bost lanek osatuko dute zikloa. Beste hiru hitzorduak datorren asteburuan izango dira: azaroaren 21ean Taula konpainiak *Hil da jainkosa* aurkeztuko du Txanporta kultur etxean, 20:00etan.

Egun bat geroago, Txalok Artea obra oholtzaratuko du; Metrica Puraren *5 segundos y 120 kilos* lanak borobilduko du Antzerkiño jaialdiaren hamargarren edizioa.

"Hunkigarria"

Monika Iglesias Kultura zinegotziaren berbetan, "hunkigarria" da jaialdiak hamar urte betetzea. "Esfortuz eta talentuz beteriko hamar urte izan dira, eta hori posible egin duten pertsona eta talde guztiei eskerrak eman gura dizkiegu", nabarmendu du. Emanaldietarako sarrerak Errotan eta Udal Mediatekan daude.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Etxea

"Aquí en Elgoibar" eman zion ongi etorria Jon Idigorrerak, irekiera jaian eginiko hitzartzean, eta hala zabaldu zituen ateak urriko egun euritsu batean. Urteak bezala, koloreak ere pilatu ditu bata bestearen gainetik; zuria, horia, gorria, grisa, eta ahaztuta dudan bat edo beste.

33 urte, arin esaten da. Urtea betetzear egongo nintzen 1992ko udazken hartan. Txikitatik ikasi genuen bertan ibiltzen, jolasten eta gozatzen. Tabernari fin izaten ikasi dugu, edo hala moduz barran moldatzen. Zenbat esku.

Antolatzen eta militatzen ikasi dugu bertan. Bilerak egiten, konpromisoak hartzen, amets txikietatik gauza handiak sortzen. Zelo, pintura, pankarta eta kartel artean galdu gara barruko gelan. Kuadrillarekin elkartzeko lekua izan da, eta bada egun askorentzat. Lagunekin joan, berriak egin eta nahastekoa. Barre egin dugu bertan, negar, haserratu eta emozionatu.

Amnistiaren aldeko Olentzero, txintxon eta mus txapelketak, bazkariak, bingo musikatuak eta ke arteko bilerak. Haurrentzako jolasak, pegatina erakusketak, hauteskunde gogorak eta garaipen handiak. Afari mexikarrak, italiarrak, sandwichak, takoak eta denerariakoak. Pintxo lehiaketak. Goizalde-arteko julepadak.

"LAGUNEKIN JOAN, BERRIAK EGIN ETA NAHASTEKOA. BARRE EGIN DUGU BERTAN, NEGAR, HASERRATU ETA EMOZIONATU"

Ekitaldiak eta kontzertuak. 20. urteurrenko postre "pozoitua" eta ondorengo ondorezak. Miaketak eta 'libre eta zabalik'. Lagun ezkutuak. Zortzi orduko kontzentra. Santamañezarrera igoerak eta pelikula emanaldiak. Luntxak, terraza eta eguzkitakoak. Hitzaldiak eta liburu aurkezpenak. Joan zaizkigunak oroitzeko omenaldiak. Preso eta iheslarien aldeko urtezahar gaueko brindisak eta trikipoteoak. Globo eta kamiseta laranjak. Auzolana.

Ikasi, hasi, hezi, gozatu, mozkortu, ligatu eta mila-ka bizipen gordetzen dituen etxea. 33 urteetan igarotako tabernariak, domeketako txandalariak, afarienak, jaietakoak, barrakoak eta garbiketak. Bertara zerbait hartzera doazenak, edo bertan orduak pasatzen dituztenak. Denok egiten dugu Castet, denongatik dago libre eta zabalik. Segi bertara joaten. Ea ba horrela, egin ditzala beste hainbat urte.

Zorionak eta gora Castet!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 14

ATXONDO On Martin Eguna
Familiantzako tailerrak, 16:30ean.
Taloak, 18:00etan.
Andasto dantza taldea, 19:00etan.
HectorFolk eta Valdes, 20:00etan.
Apatako plazan.

BERRIZ Antzerkia
'Elara, bidaia bat izarretara' (Mar Mar Teatro).
Kultur Etxean, 17:00etan.

BERRIZ Liburu aurkezpena
'Sakelako bihotzak' (Julen Apella eta Andoni Urtiaga).
Gaztetxean, 18:30ean.

DURANGO Erakusketak
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza' eta 'Goren Sakona' (Ros Boisier).
Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.

DURANGO Erakusketa
Francisco Escobarren lana.
Ezkurdi aretoan, azaroaren 17ra arte.

DURANGO Durang(h)ots
Jon Carranzaren jam session saioa.
Plateruenean, 20:00etan.

ELORRIO Kontzertua
Iosu Izagirre Sextet. Arriolako XXXVI. Jazz Blues Jaialdiaren eskutik.
Ateneoan, 20:00etan.

ELORRIO Erakusketa
Eskulturak Elorrioko kaleetan.
Iturri kultur etxean, abendura arte.

IURRETA Kontzertua
Jaimones.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Kontzertua
Femmm & Band. Musikaldia.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

MAÑARIA Kontzertua
Jorge Garcia organista.
Andra Mari elizan, 19:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Udazkeneko emanaldia: Pandero Alai + Korala Abesbatza + Dizdira Abesbatza + Zornotzako Otxotea + Xurxulariak Abesbatza. Andra Mari Ikastolako Gurasoen Abesbatza.
Zornotza Aretoan, 19:30ean.

ZORNOTZA Erakusketa
'Barnetik, hau da ikusten duguna'.
Zelaietan, azaroaren 15era arte.

ZORNOTZA Erakusketa
'Kolorea Bizi'. Josu Romañaren lanak.
Zelaietan, azaroaren 28ra arte.

ZAPATUA 15

ABADIÑO Antzerkia
'Scrooge eta mamuak' (Khea Ziater).
Antzerkiño kultur egitaraua.
Errota kultur etxean, 17:00etan.

ATXONDO Jaiak
Kalejira Axpetik, 11:00etan.
Meza, 11:30ean. Ondoren, luntxa eta Axpera buelta.
Bazkari herrikoia, 14:30ean, Atx-Azpin.
HectorFolk eta Valdesen musika.
Martza auzoan.

DURANGO Antzerkia
'Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán' (La Dramática Errante).
San Agustín kulturgunean, 19:00etan.

DURANGO Bisita gidatua
Udaletxearen historia arkitektura eta funtzionamendua ezagutzeko bisita.
Izen-ematea: www.durango.eus/ / HAZn / Turismo Bulegoan.
Udaletxean, 12:00etatik 13:00era.

DURANGO Dantza
Dantzaro. EinGo taldeagaz.
Andra Marian, 18:30ean.

ELORRIO Kontzertua
Gileb Robson. Arriolako XXXVI. Jazz Blues Jaialdiaren eskutik.
Ateneoan, 22:00etan.

IURRETA Kontzertua
Ander Zubillaga.
Korta tabernan, 20:00etan.

OTXANDIO Proiektzioa
'Ziklo-Alpinismoa Bolibian' (Iñigo Unanue eta Kattalin de Pedro).
Kultur etxean, 19:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Atxurra + Undergrounds Resistance.
Zor Ber lokalean, 19:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Xuxurlariak abesbatzaren 20. urteurreneko ekitaldia: Jaurne Gaminde sopranoa, Beñat Egiarte tenorea eta Josep Buforn pianista.
Baita Zornotzako Andra Mari Ikastolako Gurasoen Abesbatza eta Xuxurlariak Abesbatza ere.
Karmelo ikastetxean, 19:30ean.

ZORNOTZA Antzerkia
'Neura' (Ste Xeito).
Zornotza Aretoan, 20:00etan

DOMEKA 16

ABADIÑO Antzerkia
'El inconveniente' (Tela Marinera).
Antzerkiño kultur egitaraua.
Errota kultur etxean, 19:00etan.

ELORRIO Antzerkia
'Azken fakirra' (Zirika Zirkus).
Arriola antzokian, 17:00etan.

ZORNOTZA Liburu aurkezpena
'Bizitza baten txatalak. Andra bat lurrari emana' (Onintza Enbeita).
Besue elkartean, 12:00etan.

ASTELEHENA 17

BERRIZ Erakusketa
'Anastasini zirkua'.
Kultur Etxean, azaroaren 21era arte.

EGUENA 20

ABADIÑO Kontzertua
Txakurrak.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

OTXANDIO Berbaldia
'Otxandioko Aztiaren bristadak' (Hizlaria: Juan Martin Elexpuru).
Bittor Kapanaga jaio zela 100 urte bete direla-eta antolatutako berbaldia.
Kultur Etxean, 19:00etan.

BARIKUA 21

ABADIÑO Antzerkia
'Hil da jainkosa' (Taula). Antzerkiño kultur egitaraua.
Txanporta kultur etxean, 20:00etan.

ABADIÑO Kontzertua
Perlata + Grapa. Ondoren, Dj Dunkelheit vs Dj Kalt.
Gaztetxean, 20:30ean.

BERRIZ Liburu aurkezpena
'Anastasini zirkua' (Miren Amuriza, Malen Amenabar).
Kultur Etxean, 17:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

La deuda
Domeka 16: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Gaua
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 17:30, 19:30, 21:30.
Domeka 16: 18:30, 20:30.
Astelehena 17: 18:00, 20:15.
Martitzena 18: 18:00, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

Ahora me ves 3
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 19:00, 21:30.
Domeka 16: 17:30, 19:45.
Astelehena 17: 17:45, 20:15.
Martitzena 18: 17:45, 20:15.

Todos los lados de la cama
Barikua 14: 18:00, 20:30.
Zapatua 15: 16:45, 19:00, 21:30.
Domeka 16: 17:30, 19:45.
Astelehena 17: 17:45, 20:15.
Martitzena 18: 17:45, 20:15.
Eguaztena 19: 19:00.

El mago de ciudad esmeralda
Zapatua 15: 16:45.
Domeka 16: 16:30.

La fuerza del destino
Eguaztena 19:19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

On Falling
Domeka 16: 20:00.
Astelehena 17: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

La deuda
Domeka 16: 20:00.
Astelehena 17: 20:15.

La princesa orgullosa
Domeka 16: 17:00.

Esto no es Hollywood
Martitzena 18: 19:00.

BELATXIKETA ELKARTEA

Txilarreko sukaldaria
Eguaztena 19: 19:00.
(Liburua ere aurkeztuko dute)

ELORRIO Dantza
'Nik.Eu 2.0' (Ixa konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Bihotzez sorturiko ipuinak' (Betzaída Urtaza, Mitxel Elortza eta Eñaut Aiertazaguena). 3-5 urte.
Herri bibliotekan, 18:00etan.

IURRETA Kontzertua
Bogoroditsie abesbatza. Musikaldia.
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
3 From Hell.
Korta tabernan, 20:00etan.

BERRIZ Dantza
Aiert Beobidek zuzendutako Haatik konpainiak bere azken lana erakutsiko du Berrizen: *Ost* ikuskizuna. Jone San Martin dantzari eta sortzaile donostiarrak sorturiko koreografiak euskal dantza izan du inspirazio iturri.
Azaroaren 15ean, Kultur Etxean, 19:00etan.



HAATIK KONPAINIA



Elorrio futbol klubeko eta Durangoko Kultureko harrobiko taldeak entrenatu ditu aurretik.

"Entrenatzaileak barik hezitzaileak garela esan daiteke"

AITOR AZKARATE FERNANDEZ ATHLETICEKO KADETEEN BIGARREN ENTRENATZAILEA Harrobiko taldeak entrenatuta urteetan pilotutako esperientziak Lezamako atea zabaldu dio Azkarateri. Athleticen kadeteekin gustura dabilela dio eta asko ikasten

J.D. ELORRIO

Aitor Azkaratek (Elorrio, 1995) Elorrio futbol taldean benjaminak eta kimuak entrenatu zituen lehenengo, 19 urteagaz. Ondoren, Durangoko Kulturean kimuekin eta haur kategoriakoekin jarraitu zuen. Gero, kadeteen ardura eman zioten. Bien bitartean, futbol jokalaria ere bazen eta jardun biak uztartu ezin zituenez, futbola uztea erabaki zuen, 25 urte baino ez zituen arren. Bokazio berba ederto defintzen duen adibidea da.

Askok kostatu zitzaizun bietariko bat aukeratzea?

Entrenatzea jokatzea baino gehiago gustatzen zitzaidan eta garbi izan nuen. Goiz utzi nuen futbola, baina ez naiz damutzen. Bihotzagaz hartutako erabakia izan zen.

Zelan sortu zen Athleticera batzeko aukera?

Iaz Ermuko talde nagusian egon nintzen, Iñaki Garcia zaldibartarraren bigarren entrenatzaile. Udan, espero ez nuela, Eneko Bovedaren [Lezamako zuzenda-

ria] *whatsapp* bat jaso nuen. Beragaz batu eta Athleticen kadeteetako bigarren entrenatzaile izatea eskaini zidan. Gurasoek eta neska-lagunak proposamena onartzera animatu ninduten. Lanean eszedentzia bat eskatuta, eskaintza onartu nuen. **Zelako esperientzia izan da orain arte?**

Zaletasuna nuena lan bihurtu zait. Oso gustura joaten naiz eta kostatu ere egiten zait lana dela esatea.

Lan berrian zerk harritu zaitu gehien?

Detaile txikiei ematen zaien garrantziak. Hainbesteko inportantziarik ematen ez diozunari, han handia ematen diote eta behin baino gehiagotan aztertzen dute. Detaile txiki asko kontuan hartzen dira.

Zelan hezten du Athleticen kadete mailako jokalaririk bat?

Beste ezeren aurretik, jokalaria dago, pertsona. Jokalaria zelan dagoen aztertzen da, animikoki eta psikologikoki: lagunekin, familiagaz, eskolan... Taldean psikologo bat dago. Horren ondoren hasten gara futbolaz berbetan jokariagaz. Athleticera heldu bezain laster honetaz jaketu naiz: jokalaririk bakoitza ondo zaintzen da, gero beragaz lan egin ahal izateko. Entrenatzaileak barik hezitzaileak garela esan daiteke. Gero, futbol arloan ere, jokalaririk bakoitzari zer ariketa egitea komeni zaion aztertzen da. Hau da, dena jokariari lotuta dago.

Zelako taldea du Athleticen kadete mailan?

Oso ona. Komunikazio handia dugu jokariarekin. Denbora asko ematen dugu eurekin, ondo eza gutzen ditugu, eta konfiantza handia sortzen da eurekin. Ausartak dira berba egiterako orduan, eta baita futboleko jokatzerako orduan ere. Talde teknikoan ere hartu-eman ona dugu. Ander Lafuente da lehenengo entrenatzaile, ni bigarrena, Ander Dulce prestatzaile fisikoa, eta Ander Laka atezainen entrenatzaile. Lafuentegaz *feeling* ona dut. Egia esanda, oso gustura nabil eta ezin dut gehiago eskatu.

Badabil Durangaldeko jokalaririk?

Bilbo aldekoak dira gehienak. Gorago baditugu batzuk: Telmo Zarandona eta Danel Belategi durangarrak, esaterako. Biak Baskonian dabilta.

Athleticen etorkizuneko jokariak entrenatzen zabilatzala jakitea presio gehigarria da?

Klubean galdera bera egin zidaten, ea presio hori sentitzen nuen. Ezetz erantzun nien. Apurka gorantz joan behar duten jokalariren kargu zaude, baina ez dut presio hori sentitzen. Presioa sentituko nuke laguntzarik izango ez banu, baina ez da kasua. Edozein lekutara begiratuta, denak laguntzeko prest daude. Gainera, askok esperientzia zabala dute, eta, arazoren bat baduzu, ziur irtenbide bat dutela, eurek ere antzeko kontuak bizi izango zituztelako. Horrek lasaitasuna eman dit.

Athleticen edo beste klub baten lehenengo taldea entrenatzea gustatuko litzaizuke?

Bai. Beti dago apurka gorago joateko amets hori, han edo hemen lehenengo talderen bat entrenatzea. Badut hori buruan, baina orain oso gustura nago Athleticen harrobiagaz lan egiten eta asko ikasten nabilela sentitzen dut.

Maila askotako haurrak entrenatu dituzu. Haur kategoriatik kadeteetara salto handia dago?

Bai. Jokatzeko beste modu bat sartzen da. Gorputzak nabarmen garatzen dira adin horretan, eta, ondorioz, joan-etorri gehiago dago zelaian. Kadeteetan jada ikusten da zelako jokalaria bihurtuko den etorkizunean.

Bere filosofia gaitik, Athleticen etengabe atera behar ditu jokariak harrobitik. Durangon jaiotako Selton Sued da azken adibidea. Debutatu berri du. Zelako jokalaria iruditzen zaizu?

Ikusi dudaretik, jokalaririk desberdina da. Normalean zelai batean ikusten ez diren gauzak egiten ditu. Jokalaririk deigarria eta gustagarria da. Pazientzia behar da beragaz, eta ea apurka aukera gehiago duen eta gora egiten duen lehenengo taldean. Asier Hierrok ere debutatu berri du lehenengo taldeagaz. Harrobiagaz lanean dabilen batentzat ez dago gazteak lehenengo taldean tokia egiten ikustea baino gauza hoberik.

"EZ DUT PRESIORIK SENTITZEN. EDOZEIN LEKUTARA BEGIRATUTA, DENAK LAGUNTZEKO PREST DAUDE"

"JOKALARIA DAGO LEHENENGO, PERTSONA. LAGUNEKIN, FAMILIAN... ZELAN DAGOEN IKUSTEN DA"

Amorebietak hirugarren garaipena gura du segidan

FUTBOLA Amorebieta futbol taldea neurria hartzen hasi zaio Bigarren Federazioa Mailari. Joan zen asteburuan denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen etxetik kanpora. Jarraian garaipen bi kateatuta, igoera postuak gertu ditu orain

J.D. ZORNOTZA
Iaz Bigarren Federazio Mailara jaitsi eta taldea eraberritu eta gero, Amorebieta futbol taldeak igoeragaz amesten du aurten. Maila berriari neurria hartzea kostatzen ari zaio, batez ere etxetik kanpora, baina joan zen asteburuan Urritxetik urrun lorturiko lehenengo garaipena mugarri bihurtu daiteke. Aste-buru honetan hirugarren garaipena segidan lortuz gero, igoera postuan kokatzeko aukera izan lezake.

Zapatuan, Alaves taldearen filialak bisitatuko du Urritxe, 18:00etan. Gasteiztarak etxean baino hobeto dabilta etxetik kanpora —hiru garaipen bost partidutan— eta talde arrisku-tsua da, jokalarik azkarrak di-tuelako. Horregaitik, Amore-bietak tentuz ibili beharko du atzean, azken asteetan legez. Aitor Zulaikak gidatutako tal-deak partidu bi daramatza golik jaso barik.



Jokariak Zaragozan lorturiko garaipena ospatzen. CD AMOREBIETA

Joan zen asteburuan beste filial bat hartu zuen mendean, Zaragozarena: 0-1. Mikel Arzallus eta Gonzalo Zorrilla jokariaren meritua izan zen gola. Lehenengoak baloia aurkariari kendu, eta bigarrenak ederto bilatu zuen

tokia area barruan taldekidearen pasea errematatzeke. Zorrillaren hirugarren gola izan zen ligan. Bera da taldeko golegile nagusia Julen Castañedagaz batera. Azken honek ere hiru gol daramatza, euretariko bi penaltiz.



Zornotza STko zaleak, Larrea kiroldegian.

Teknei Zornotzak lidertzari eutsi gura dio etxeko partiduan

SASKIBALOIA Hirugarren FEB Mailan jokaturiko sei partiduak irabazi ditu. Bihar Zamora hartuko du etxean

J.D. ZORNOTZA
Zornotza Saskibaloi Taldeak orain arte jokaturiko sei partiduak irabazi ditu Hirugarren FEB Mailan. Iaz mailaz jaitsi zen hainbat urtean Bigarren FEBen egon eta gero, eta oraingoz bide onetik doa aurten berriro kategoria horretara bueltatzeko.

Partidu batzuetan erakustaldiak eman ditu. Horren adibide da joan zen asteburuan Avilan lorturiko garaipena. 20 puntu baino gehiagoko aldeagaz nagusitu zen. Oro har, Zornotza ST bere multzoan punturik gehien lortu duen taldea da: 526 puntu, batez beste

ia 88 partiduko. Horrez gainera, batez beste 60 puntu baino ez ditu jaso partidu bakoitzeko. Estatistika bien artean dagoen aldeak argi erakusten du Teknei Zornotza bere multzoan erakusten dabilen nagusitasuna.

Zapatu honetan, 18:30ean, Caja Rural Zamora taldea hartuko du Zornotzako Larrea kiroldegian. Orain arte ikusitakoak ikusita, irabazteko partiduak du multzoko azken-aurreko sailkatuaren aurrean. Hala ere, zamararrak liga hasieran baino hobeto dabilta, azken hiru partiduetatik bi irabazita.



JOKALDIA

ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

Pauso berriak emateko garaia

Behin eta berriro horma berean tupust egitea nekagarria da. Energia asko alferrik galtzea dakar. Urteak joan eta urteak etorri, ikusten dut txirrindularitza hobetzeko behetik, oinarritik, egiten dugun ahaleginak sarritan ez duela islarik goian. Mezua behetik gorako bidean geratzen da arrakalaren baten trabatuta, eta heltzen denetan ere, gero ez da errealtate bihurtzen.

Sarritan aipatu dut txirrindularitzan berdintasunaren alde pausoak eman direla, bai, baina oraindik lan handia dagoela egiteko. Egunero errepidean gabiltzanok ondo dakigu hori, geure begiekin ikusten dugulako. Ogoera jakinarazten eta gauzak aldatzen saiatzen gara, baina ahalegin handia egin beharra dago pauso txiki bat emateko. Hori baino gehiago nahi eta merezi dugula iruditzen zait. Txirrindularitza txirrindulariek, taldeek eta euren inguruan dabilzanek egiten dute. Egunero hor lanean gabiltzanon ekarpena ezinbestekoa da ziklismoak aurrera egiteko. Horrenbestez, gure aho-

"MEZUAK BEHETIK GORAKO BIDEAN GERATZEN DIRA, ARRAKALAREN BATEN TRABATUTA"

"BEHARBADA HELDU DA ESKAILERAKO MAILAK BANAN-BANAN BARIK BINAKA EDO HIRUNAKA IGOTZEKO SASOIA"

tsak pisu handiagoa izan beharko lukeela uste dut eta estamentuek modu eraginkorragoan funtzionatu beharko luketelakoan nago.

Egoera horren aurrean zer egin? Geure burua beti arrakala berean trabatzera kondenatu ala determinazio berriren bat hartu? Ez da erabaki erraza. Beharbada heldu da sasoia behetik gorako eskailerako mailak banan-banan barik binaka edo hirunaka igotzeko sasoia. Urteen poderioz konturatu naiz gauzak aldatu nahi badira erabakiguneetan egon behar dela, goian dagoela behekoa aldatzeko giltza. Bestela, oso gaxta da egin behar direla uste dudun aurrerapausoak egitea.

Bizikleta eskolagaz jarraituko dut, umeak eta gazteak hezteak eta trebatzeak asebate egiten nautelako, baina pauso berri bat emateko prestatzen gabiltza. Momentuz ezin dezaket gehiago aurreratu. Baina kontuan hartu ideia hau: betikoa egiten jarraitzen badugu, betiko tokian egingo dugu estropezu.

GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 14, BARIKUA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 15, ZAPATUA
09:00-09:00
Sagastizabal,Askatasun etorb. 19 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 16, DOMEKA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
AZAROAK 17, ASTELEHENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 18, MARTITZENA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 19, EGUAZTENA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
AZAROAK 20, EGUENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Iraia
Azaroaren 15ean, 6 urte.
Azaroaren 15ean, **Iraia**k 6 urte!
Zorionak, txapeldun!
Asko maite zaitugu, printzesa!



Ibone
Azaroaren 12an, 8 urte.
Zorionak, Pirru! Urte askoan
holako zoragarria izeten
jarraitxu daizun! Besarkada bat
etxeko danen partez!



DURANGO
1945eko kintoak
1945ean jaiotakoek bazkaria egin zuten lehengo asteburuan.



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
📘 Gozatu Gozotegia
📧 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:


Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/ zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatziz: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitzez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA



Azaroak 14, barikua.

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK
Azaroa

15
LARUNBATA

OST - HAATIK DANTZA
17:00 Berrizko Kultur Etxea



21
OSTIRALA

'ANASTASINI ZIRKUA'
17:00 Berrizko Kultur Etxean



30
IGANDEA

BERTSO SAIOA
12:00 Berrizko Kultur Etxean



GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Matiena: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=E 140.000 €**
San Inazio: Garajea. **11.000 €.**

Alluitz: Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehioa 2 kaletara. **110.000 €**

Abadiño: Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. **30.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Montebideo: Apartamentua. Erdigunean. Logela, sukaldea, despentsa eta egongela. Balkoia. **C.E.E=E 187.000 €**

Mañaria: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. **C.E.E=E 250.000 €**

Juan de Olazaran: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Jantzia. **C.E.E=B 382.000 €**

Durango: Erdi-banatua. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E.E=F**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoea. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI

Fray Juan de Zumarraga: 180 m2. Egokitutako lokala. Erakuslehioarekin. Alokairuan. **2.700 €**

Olleria: 135 m2. Egokitua. alokairuan edo salgai.

Durango: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. **115.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **90.000 €**

Juan Mari Altuna: 100 m2. Egokitua. Kearentzako irteera. Alokairuan.

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Durango: Bulegoa. Lehenengo solairua. **650 € lurreta:** Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €.**

Astepe: 40 m2-ko lokala. **70.000 €**

Askatasun etorbidea: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. **125.000 €.**

Abadiño: Pabilioia. 172 m2. Bulegoa, aldagelak eta komunak. Alokairuan edo salgai. **170.000 €.**

lurreta: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €**



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.


LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 179.000 €

DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna duxarekin. Berrikuntzak behar ditu (lehiok aldatuta) Birbanatzeko aukera ematen du. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du, iparraldea. Argitsua eta etxebizitza altua. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. ITE-a pasatuta.



C.E.E: G. 182.000 €

DURANGO Antso Estegiz: 42,50 m2. Berriztatuta. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna duxarekin. Egoera ezin hobean. Exe erdiak kanpora ematen du. Erdigunetik gertu. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.



C. E. E.:BIDEAN 164.000€

MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. 14,25 m2-ko ganbara. Aparteko garaje-partzela erosteko aukerarekin.



C. E. E.: G. 187.000€

BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin eta leihoarekin. Balkoia. Egoera onean. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



C. E. E.:BIDEAN 164.000€

ABADINO San Trokaz: 33,65 m2. Egongela-sukadlea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.



Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO

Antso Eztegiz: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. **160.000 € / E.E.Z=F**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 € / E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia **22.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

Plateruen plaza: Garajea **25.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 € /hil. / E.E.Z=E**

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**

Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

IURRETA

Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.

Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € /hilean.**

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu



LAU-HORTZA

IRURI ALTZERREKA

Gatzaren ardura

Gure aitona-amonek noizean behin *perlatxoak* botatzeko joera daukate, esamolde kuriosoren bat. Horrelakoetan adi egotea gustatzen zait, zer entzungo. Asko aipa nitzake, baina bada bat bereziki gogoratzen dudana: *ai, ume, ondino ez dozu gatzan ardurie hartu!*

Gatza eta ardura, ardura eta gatza. Konbinazio xelebrea. Umetan ez nuen esaldia ulertzen. Adinean gora joan ahala, orde, gurasokeria kutsua hartu diot. Edozelan ere, gure adina adin, amamak esaten jarraituko duen irudipena dut, beti izango baikara *ume* bere begietan. Heldutasuna performatzen dugun *umeak*.

Zortzi orduko lanaldia izango dugu, kotxe berria, etxebizitza plana, supermerkatuko txartela, prestatu nahi ditugun oposizioko apunteak, Ikeako *wish lista*, argindarraren faktura, dentistarekin zita, planeatutako bidaia... eta txiki sentituko gara, plastikozko pertsonaia. Behin-behineko egoera konstantean.

Helduaroa hori baita: garbigailua jarri arren arropa zikinen otzara beti beteta egotea. Egozinezin jarraitua. Ez zait metafora hoberik bururatzen. Eta, hala ere, egunero ohetik altxatu eta jantziak eskegiko ditugu. Edo egitekoa biharko utziko dugu, prokrastinatu. Batek daki. Ez dakit ardura hartzea hori den, baina badaezpada gatza neurrian botatzen dut kozinatzerakoan.

AKUILUA

"Bertako mendi eta paisaiekin sortu ditut diseinuak"

UNAI ARREGI MAÑARIKUA SORTZAILEA

Ehun naturalekin egindako arropa saltzen du, Arima Basque Brand izenpean. Orain hiru urte merkaturatu zuen marka, eta gehiago ezagutaraztea du aurrera begirako erronka

Aitziber Basauri ELORRIO

Nikiak, txanodun eta txanorik bako jertseak, biserak, prakak, jakak, praka laburrak... Unai Arregik (Elorrio, 1996) askotariko unisex arropa saltzen du Erreka kalean duen dendan. Moda eta jasagarritasuna uztartzen dituen proiektua da berea. Lan handia eskatzen duela aitortu duen arren, pozik dago orain arte arrebaren laguntzagaz egindako bideagaz. Prest dute bilduma berria. (@arimabasquebrand).

Zelan definituko zenuke Arima?

Tokikoari, bertan dugunari, balioa ematea. Horixe izan da beti gure helburua. Betidanik gustatu izan zait moda, eta jantzi jasagarriekin uztartu gura izan dut. Hartara, saltzen ditugun jantzien % 95 kotoi organikoez eta birziklatutako poliesterragaz egindakoak dira. Bizitzeko beste modu bati balioa emateko era bat da. Pauso txikiak emanda, mundu jasagarriago baterantz joan gaitezkeelako denon artean. Kontsumo arduratsuan sinisten dut.

Beraz, kontsumo arduratsua gatz loturiko filosofia dago Arimaren atzean.

Bai. Eta bizitzako arlo guztietara eroan beharko genuke pentsaera hori.



"GURE JANTZIEN % 95 KOTOI ORGANIKOEKIN ETA BIRZIKLATUTAKO POLIESTERRAGAZ EGINDA DAUDE"

Jasagarria ez ezik, tokikoa izateari ere garrantzia ematen diozue. Sorturiko diseinuek hori islatzen dute.

Bai. Bertako mendi eta inguruak kontuan hartuta sortu ditut jantziatarako diseinuak: Udalatz, Gatzelugatxe, Barrika... Euskal

Herrian mendia eta itsasoa ditugu, eta biak batuta sortu genuen logoa ere. Tokikoa eta jasagarria dela kontuan hartuta, gure izana ondo islatzen duen izena du proiektuak: Arima.

Enkarguak hartzen dituzu?

Bezereen eskarrietara egokitzen ahalegintzen gara, ahal dugun neurrian. Baina ez dugu enkarguz lan egiten. Denda fisikoa izatea garrantzitsua dela uste dugu; horregatik zabaldu genuen denda Erreka kalean. Hala ere, Interneten ere badaukagu denda. Aukera biak eskaintzen ditugu. Azoka batzuetan ere saldu dugu. Abenduaren 13an Naiz Market elkarteak Durangon egingo duen azokan egongo gara. Pozik gaude Arimak duen harreagaraz, eta apurka-apurka geroago eta ezagunagoak gara. Zerbitzu ona eta hurbila ematea da gure helburua.

Zein produktu saltzen da gehien?

Txanodun jertseek oso harrera ona dute. Biserak ere ondo saltzen dira. Nik neuk ere jantzen ditut, eta, kalitateari eta erosotasunari dagokienez, jendeak alde igartzen duela esango nuke. Durangaldetik kanpora ere jaso izan ditut eskaerak: Bilbotik, Gernikatik, Iruñetik...

Zein da zuen erronka aurrera begira? Noraino heldu gura duzu?

Geroago eta jende gehiagoren gana heltzea dut helburu. Sare sozialak oso erreminta ona dira horretarako, produktua erakusteko batez ere. Ia ezinbesteko bihurtu dira produktu bat zabaltzeko. Ahal dugun neurrian gabilta horretan lanean. Gainera, kirol munduagaz lotuta bilduma berri bat sortu gura dugu, osagarriak batez ere: biserak, motxilatxoak...



Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:
sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa